

uk

235. zenbakia / 2013ko ekainaren 24a



URTEAN

20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki

Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri

Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean

Urte osoan argazki zahar eta barriak

Urte osoan zure proiektuak lau haizetara

Urtean 20 euro

uk

www.ukaldizkaria.biz

✓

neuk ere gura dot

Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

UK 94 491 13 37

UK uk@aldizkaria.biz

RENAULT CAPTUR

HARRAPATU BIZITZA



RENAULT QUALITY MADE

WORLD CHAMPION ENGINE

Renault Captur gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,7tik 5,4raino. CO2 isuria (g/km) 96tik 125eraino.

DRIVE THE CHANGE



BILBO BERRI

JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com

LEIOA BERRI AUTO

IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Nerea Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Armando Llamosas, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritzta Bergara, Algotako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

	
	
	
	
	
 Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia Kultura Saila Departamento de Cultura	

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Untxi-abeletxea sutan.
6. FACEGUK. Hondakinak batzeko bosgarren edukiontzia darabilzu?
7. LEHEN ETA ORAIN. Igeretxe (Getxo).
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Pablo Clavijo.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Getxoko StreetCulture ekimena.
28. ARGAZKIA. Erromeria Plentzian.
30. BERBETAN. Barry Manley.
34. FOTOGRAFIA. Luis de Isusi.
40. SAKONEAN. Bosgarren edukiontzia Uribe Kostan.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Plentziako Mikrofilm jaialdia.
43. MUSIKA. Armintzako Txapelreggae jaialdia.
44. LIBURUAK. Monique Wittig.
45. KIROLAK. Extreme Man 113 Getxo Triatloia.
46. ELKARRIZKETA. Uriz Moreno Ajuria.
47. JENTILKOBA. Herensugea.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Haragi-bola.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Uso-tiro elkartasun-jardunaldiak Txipion, 1964.
54. AITORMENAK. Mikel Martinez.

Azala: Luis de Isusi

www.ukaldizkaria.biz

30 Barry Manley

Berbetan

Umoregile irlandar-euskaldunagaz bere euskarazko umore-bakarriketa arrakastatsuez berba egin dugu.

11 Pablo Clavijo

46 Uriz Moreno

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
Kalea/zenb..... Herria.....
e-mail.....
Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro
☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

UK 3

Leihatila

> Amaia Arriaga

Sexu-
langileak

Bilboko gertakari basatiak direla eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean tolerantziarik ez izatea aldarrikatu dute, beste askok bezala, Bilboko Udaleko agintariek, eta niri, bat-batean, ‘hipokritak’ berba etorri zait agora, biktimen aldeko benetako aldarria babesa eta eskubideak aitortzea litzatekeela uste dudalako, bizileku- eta lan-baimena, asilo eskubidea eta abar.

Baina Bilboko Udalak, beste askok bezala, azken urteetan, kaleko prostituzioan ari diren emakumeenganako jazarpen gupidagabea egin du, gaizkile modura tratatu eta ahulago bilakatu ditu.

Nire ustez, egoerarik ahulena bizi duten emakumeak babesteko politika publikoak behar ditugu, eta, horretarako, beharrezkoa da sexu-langileen eskubideak defendatzea, eskubideak aitortzen dizkieten eta zapalduak izateko aukera murrizten duten lan arloko legeak egitea, eta beren borondatez ari diren sexu-langileen segurtasuna handitzeko neurriak hartzea.

Jarduera horretan aritzeko baldintzak hobetzeak asko lagunduko lieke zein zerbitzu eskaini nahi duten, nori eta zein baldintzatan aukeratzeko.

gu geu

Zer eguraldi? Berdin digu!

Igogailuetako esparrua gainditu du eguraldiaren gaineko berbetak; han eta hemen, honegaz eta haregaz, solasaldirako gai saihestezin bihurtu dira euria, hotza, eguzki-izpi apurrak, berotasun falta.. Gu ere kiribil zoro horretan murgildu gara, baina aterabidean edo, hauxe erabaki dugu: eguraldiak bost axola! Bakarka, bikoteka, hirunaka zein lagunartean gure zeregin, egitasmo eta planak zerura begiratu barik egin egingo ditugu! Hori bai zer eta non aukeratzea erraza izango denik ez pentsa! Hamaika estilotako musika emanaldiak, makina bat antzerki-lan, museoetako ateak parez pare zabalik, dantza-ikuskizun andana, hainbat film interesgarriren eskaintza, olatuen kulunkaz eta hondartzako paisaiaz gozatzeko irakurtzeko mila liburu zain, kirola egiteko leku ezezagun asko... Gura duena aspertuko da! “Eguraldi txarra dago”, “euria da” bezalako aitzakiarik ez dugu onartuko!

Iritzia

Lourdes Artetxeren eta Joseba Kanporen omenez AEK-ko Iratxe Martaren gutuna:

Izar berri bi piztu dira
Erromoko zeruan

***Bat Korrika**, bi Korrika, milaka korrikari Euskal Herri guztietan denok bai euskarari...*

...dio lehenengo Korrikarako, 1980an, Xabier Amurizak egin zituen bertso musika-tuen hasierak. Bat, bi, hiru, lau... lehenengo horien artean zineten zuok, Lourdes eta Joseba.

Gogoan zaituztegu. Zuen familiak eta zuen lagunek, jakina, baina baita gure bizi-tzako zati bat zuekin konpartitzeko aukera izan dugun guztiok ere, gogoan zaituztegu.

Ezin ahaztu gu gauden tokian gaudela (Uribe Kostako AEKn) zuek itsasontzi honen sorreran jarri zenuten ilusioa. Zuek eta beste batzuek, baina zuek, Lourdes eta Joseba, marinel lanak eginaz itsasoratu zenituzten Ganbara, Lauaxeta...

Denona den itsasontzia behin martxan ipinita, zu, Joseba, beste itsasontzi batzuk egitera joan zinen. Lourdes, ordea, gurekin geratu izan da; gure itsasontzi honen bela, bela nagusia.

Orain arte AEKn eman ditudan heme-retzi urte hauetatik, hemeretziak zure ondo-an eman ditut, Lourdes.

Maddi jaiota zure ordezkoa egitera sartu nintzen, eta hasierako nire eskola horien iparrrorratza izan zinen. Programazioak, “koadernillo” famatu hura, nozio orokorrak, espezifikoak eta kultur-ekintza... horietan guztietan zurekin trebatu nintzen, eta gaur egun, zuk utzitako herentzia hori mantentzen dut.

Arduretan ere beti zurekin, zu zutarri, zuk bizitakoak eta Josebak esandakoak herentzia horretan utzitako testu-liburu.

Eta, Korrika, zuon Korrika, guztion Korrika. Zuek maite zenuten eta duzuen neurri berean maitatzen irakatsi didazue. Burura etortzen zait Korrika 11n, 1999an, zuk, Lourdes, Roman egin zenuen kilometro hura. Lander, Maddi, zu... eta atzetik joan ginen guztiok bizi izan genituen emozio eta sentimendu guztiak, urduritasuna, negargura, harrotasuna...

Hamazortzi Korrika joan dira, hala ere, hemeretzi, hogei, hogeita bat etorriko zaizkigu, eta zuk, Joseba, esaten zenuen legez, hori da Korrikak duen magia: zain gaudela, bada-torrela, eta gelditu barik badoala. Bada, zuek gurekin egongo zarete etorriko diren guztien zain. Pasako dira, gehiago etorriko dira, eta zuok gurekin korrika, gelditu barik.

Itsasontziak martxan jarraituko du, baina ez dauka belarik, ez lemazainik. Dena den, badakit norantz bideratu behar dudan/dugun: gure zeruan piztu diren izar bi horietarantz.

Eta bukatzeko, Xabier Amurizak idatzita-ko koplelara bueltatu nahi dut:

Eguzkiak sor lezake milaka argi-suzi...

....dio azken estrofak. Bada, horixe izan zineten, euskararen eguzkiak sortutako argi-suzi. Amets egin zenuten, eta ametsa egia bihurtu. Ez zaituztegu ahaztuko, Lourdes eta Joseba; eta lasai, “korrika goaz, iritsi arte gure herriko helmugara”.

Iratxe Marta
(Uribe Kostako AEK-kidea)



ERANDIO, 2018KO EKAINA

Libratu dira, momentuz... / Ikusgarria izan zen ekain hasieran piztutako sutea, non eta Erandioko untxitegi batean. Ke-zutabea urrunetik ikusten zen, baita Bilbotik ere, eta gure argazkilari finak irudi hau atera zuen. Hasieran, 2.000 untxi hil zirelako ustea zegoen, untxien jabea ere hala sinetsita, eraikina erabat erre eta deuseztu zuelako suak; baina usteak erdia ustel! Danen haridurarako, untxiak bizirik urten ziren sutetik: bizia libratu eta hilabete batzuk irabazi zizkioten heriotzari. Baina patua aspaldi ebatzita, azken helmuga ondo zehaztuta daukate untxi horiek... O / Argazkia: Hodei Torres

Auzokideen iritzia jakin gura duzu?
Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera
umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak...
Idatzi galdera **gure facebook**-en
eta zeure partez luzatuko dugul!

Hondakinak batzeko bosgarren edukiontzia erabiltzen duzu?



 Erandio

Garazi Rodriguez Areitio

> haur-hezkuntza teknikaria

Oraindino ez dut erabiltzen, guraso-
en etxean bizi naiz eta han ez daukagu
tokirik beste ontzi batentzat, izan ere,
beste hiru daukagu daborduko: plasti-
koa, papera eta zaborrarentzat. Baina
gustuko nuke ipintzea. Izeko-osabek ber-
ren kabuz egiten dute konposta, inter-
resgarria da eta ondo deritzot.



 Erandio

Lourdes Duran Sanchez

> etxekoandrea

Oraindino ez gara hasi bosgarrena
erabiltzen, baina etxean hondakinak
banatu eta birziklatzera eroaten ditugu
daborduko: plastikoa, papera, e.a. Be-
raz, seguruenez laster animatuko gara.
Ondo deritzot birziklatzeari, ona da ingu-
rumenarentzat.



 Erandio

Nekane Latxaga Rementeria

> ingeniari teknikoa

Erandiogoikoan bizi naiz, landa ere-
muan. Ez dut bosgarren edukiontzia era-
biltzeko beharrik, etxean bertan egiten
dudalako konposta, gero solorako eta
loreentzat erabiltzeko. Beharra geneu-
kan, etxean hondar asko botatzen da
eta zergatik ez baliatu?



 Erandio

Jose Luis Urriz Deusto

> iturgina eta garbitzailea

Ez dut uste sistema horrek arrakas-
ta handirik izango duenik Erandion, oso
alferrak gara-eta. Dena den, aukeratze-
kotan nahiago nuke atez ateko bilketa
sistema ipintzea, gehiago birziklatuko li-
tzateke-eta. Politikoki erabiltzen dute
bosgarren edukiontzia, atez ateko siste-
mari aurre egiteko.



 Erandio

Maria Bakero Moreno

> ingurugiro-teknikaria

Animatu naiz, baina ezin izan nuen
Udalaren hitzaldietara joan eta, beraz,
ezin izan nuen edukiontzia giltza har-
tu. Erabili ahal izateko giltza behar da,
eta lehen sorta amaitu zen. Udalekoek
esan dute saiaturako direla beste giltza-
sorta bat egiten, eta zain nago. Aurretik
egin izan dut etxean konposta.



 Erandio

Tomas Gonzalez Izagirre

> garbitzailea

Oso barria denez ez naiz hasi erabi-
ltzen, baina asmoa daukat; etxe parean
daukat edukiontzia eta aitzakiarik ez. Uste
dut jendeak erabiliko duela, beste
edukiontzia gertatu bezala. Bestalde,
ez dut uste atez ateko sistema egokia
denik Erandiorako: zenbait tokitan ez
dago lekurik zutabe horiek ipintzeko.



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / IGERETXE (GETXO)

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > sanjuanak



Berango, 2012ko ekainaren 23a

Testua: **Imanol Uria** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: *Euskal Herri*tik aparte

Ekainetik abuztura egoten gara gustura, baina non hasten da gozamina, non ote da muga; San Juaneko ohitura guztiok begira sura adierazten du badatozela oporrak ta uda.

San Juanetako altxorak eta udako mozkorrak atzeratzeko gaitasuna du ikasketen zorrak; ikasle garai gogorrak ezin berotu motorrak uztaileako ez direlako iristen oporrak.

Nahiz ikasketetan trebe, hondartza dutenek xede eguraldiak aurtan ez die egingo mesede; euriak zenbat botere dugu goizeroko lege martxa honetan ezingo dugu sua piztu ere.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 zm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK

19,90 €

BEZ BARNE



global printers
applications + business

Villa de Plentzia, 6
GETXO
Gobela metro
geltokiaren ondoan

ospakizuna > Pirritx, Porrotx eta Marimotots



Info+: www.katxiporreta.com

San Nikolas ikastolak 50. urteurrena ospatzen darrai, eta horretarako beste ekimen bat antolatu dute: pailaoen ikuskizuna. 25 urte joan dira Pirritx, Porrotx eta Marimototsek herriz herri sudur goriak jantzita lehenengo emanaldiak egin zituztenik eta eurek ere badute zer ospatu. Hala, San Nikolasekoek eta pailazo ezagunek urteurren-festa prest dute, eta gainera *Sentitu, pentsatu ekin!* ikuskizunean ama-


ma Josefinaren 100. urteurrena ere ospatuko dute. Jairako hitzordua uztailaren 13an, zapatua, 16:30ean eta 19:00etan, ipini dute, Biotz Alai plazan (Algorta). Sarrerak 7 euro balio du, eta hurrengo lekuetan eros daiteke: San Nikolas, Geroa, Betiko eta Ander Deuna ikastoletan, Baserri taberna, Argazki Lur, Amets eta Villamonteko kultur etxean. ○

Sarrerak sarean: www.sanikolas.com

gida > Euskal Herrian surfean egiteko

Orain dela astebete inguru banatu zuen Gara egunkariak Haritz Larrañagak eta Mikel Troitiñok egin duten *Euskal Herriko surf gida* (Herritar Berri, 2013). Egunkariagaz batera banatu bazuten ere, orain sarean eros daiteke 11,95 eurotan (bidaltze-gastuez gainera). *“Euskal Herrian surf egiteko beharrezkoa den guztia dakarren gida euskaraz eta ingelesez idatzita dago, eta lehen aldiz euskal kostalde osoa hartzen*

du, Muskizetik Angeluraino”, azaldu du argitaratzaileak. Hala, bitartean Uribe Kostako hainbat hondartza, olatu eta urautsi jasotzen ditu, adb.: Ereagako blokeak atzekarri, Jeffeys Kubitas, Arrigunagako Piko paz, Puntagalea, Aizkorriko Labarpe, Erlaitz, Barinatxeko Trianguko ezkerre, Arrietara, Atxabiribil, Ikatzeko Sitio, Barrikako Meñakoz, Muriola, Plentzia, Astondo, Lemoizeko Laja e.a. ○



Info+: ehsurf.naiz.info

domeinua > .eus onartuta

PuntuEus Fundaziotik jakinarazi dutenez, *“ICANN erakundeak Euskararen eta Euskal Kulturaren Komunitatearen .eus domeinua onartu du”*. Fundazioko en iritziz, *“Euskararen herriaren nazioarteko aitortza: .eus lehen mailako Interneteko domeinu bat baita, hau da, komunitatearen garapen lokalerako tresna global bat”*. Egitasmoa abiatu zenetik lau urte joan dira, iaz aurkeztu zioten dagokion era-

kundeari, ICANN-ri, .eus domeinuaren eskaria. Kudeaketa eta erabilera kontuei dagokienez, Fundaziotik azaldu legez, *“2014ko apirilerako domeinua erabiltzeko prest egotea espero dugu; Domeinu berria erabili nahi duten webguneei euskarazko bertsioa izan edota euskal kulturaren inguruko gaiak jorratu beharko dituzte, eta Webgune batek .eus eta .com aldi berean erabili ahal izango ditu”*. ○



Info+: www.puntueus.org



Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa



...harria ...lehengo garaiak... ...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Euskara etxez etxe



- jostailu edo joku bat
- liburu bat
- musika CD bat
- DVD edo CD-ROM bat.

Seme-alabak haur edo lehen hezkuntzan ari badira...
...etxera eraman dezakezu

Euskara zerbitzuak zure eskura jarri ditu hori guztia
biltzen duten poltsak.

Hartu eta gozatu,
eta bestee ere aukera izan dezaten ...
... zaindu eta bueltatu.

**Poltsak, eta materiala erabiltzeko oharrak,
UDAL LIBURUTEGIETAN aurkituko dituzu**

Altzaga: Jesus Aranburu 6-8

Astrabudua: Josu Murueta kultur etxea

www.erandiokoeuskarazerbitzua.com

euskara@erandioko-udala.com

944890128



"Nagusiek esaten didate izozkiek betiko zaporea dutela, eta txikitako oroitzapenak etortzen zaizkiela burura"

Pablo Clavijo > Aberasturi izozkiak, udako errege!

Zeruari so. Horrela ibili gara azken asteetan, aterkina utzi eta bainujantzia hartu, hondartzan etzan, azala belztu, palakaz olgetan ibili, harezko gaztelua eraiki edo izozki gozo bategaz freskatzeko gogoz. Pablo Clavijoren kasuan, gogo baina, eguzki izpiak beharrezkoak ditu, bere lana guztiz baldintzatzen du-eta: "Ez badago eguraldi onik ez dut sosik inabazten arratsalde". Clavijok bederatzi urte daroaz Getxoko Aberasturi izozki-denda ezagunean lanean. Goizetan Areetako lantegian dihardu, zapoak sortzen: "Zapore bakoitzaren formula jakin behar duzu: kalitatezko esnea bota, fruta freskoak erabili... gurean dana da naturala, kimiko bakoak". Arrastian, barriz, furgonetan egoten da, Ereaga parean, migrazio *playero*-ari aurre egiten: "Hemen gehien saltzen diren zapoak tradizionalak dira: hurra, marrubia eta limoia. Eta noski, zapore klasikoak: txokolatea, esne-gaina eta bainila". Hori bai, furgoneta eguraldi ona dagoenean bakarrik urteten da: "Lehen, nahiz eta lainotua egon, zer edo zer saltzen zen. Orain, eguraldi bikaina behar da izozkiak saltzeko". Baina Clavijoren iritziz, 1926. urtean sortutako izozki-denda hau sasoian dago oraindino, tradizioari esker: "Nagusiek esaten didate izozkiek betiko zapore berbera dutela, ez dela aldatu, eta txikitako oroitzapenak etortzen zaizkiela burura".

Argazkia: Asier Mentxaka / Testua: Julen Nafarrate

Jazz doinuz blai uztail hasiera

Hilaren 3tik 7ra, Nazioarteko **Jazzaldiaren** taula nagusira **igoko dira** Ignacio **Berroa** Quintet, **Stacey Kent**, Al Di **Meola World Sinfonia**, Gonzalo **Rubalcaba** Trio eta Wynton **Marsalis**

Getxoko XXXVII. Nazioarteko Jazzaldiak ez du hutsik egingo eta jazz doinuz bustiko du Algorta uztailaren 3tik 7ra. Eszenatoki bi egongo dira, nagusia Biotz Alai plazan eta doako kontzertuak hartuko dituen Geltokia plazan. Ohi legez, musika taldeen lehiaketa ere egingo da taula nagusian, eguneko gonbidatuaren emanaldia baino lehen: Europako lau talde lehiatuko dira.

Jazz zaleak urduri egongo dira, izan ere, XXXVII. Nazioarteko Jazzaldia izango da uztailaren 3tik 7ra Algortan. Biotz Alai plazako taulak hartuko ditu kontzertu nagusiak, 21:00etan, eta Geltokia plazakoak doakoak, 19:00etan. Gainera, musika-taldeen lehiaketa jokatu da Biotz Alain, eguneko musika-talde gonbidatuaren emanaldia baino lehen.

Eguaztena 3an hasiko da Jazzaldia eta Biotz Alain joko dute: Pernal/Szkil Quintet (Polonia) eta Ignacio Berroa Quartet taldeak; sartzera 10 euro ordaindu behar da. Eguena 4an, barriz, Artur Tuznik Trio (Danimarka) eta Stacey Kent arituko dira, sartzera 10 euro izango da. Barikua 5ean Jan Feco Quartet (Txekiar Errepublika) eta Al Di Meola World Sinfonia taldeek joko dute, eta sartzera 15 euro ordaindu behar da. Zapatua 6an Freeway Quintet (Polonia) eta Gonzalo Rubalcaba Trio igoko dira oholtzara, eta 15 euro ordaindu behar da horiek ikusteko.

Azkenik, domeka 7an lehiaketako



Ignacio Berroa bateria-jotzaileak zabalduko du Jazzaldia, uztailaren 3an

talde irabazleak joko du, baita Jazz at Lincoln Center Orkestrak ere, azken hori Wynton Marsalis tronpetajotzaileagaz batera; kontzertu hori ikusteko 30 euro ordaindu behar da.

“Doako kontzertuak 19:00etan dira Geltokia plazan; ordaintzekoak 21:00etan Biotz Alai plazan”

Horregaz batera, esatea hainbat lagunek prezio murriztuan eros ditzakeela kontzertuetarako sarrerak, eta horiek dira erretiratuak, Gazte Txarteladunak, Getxo Pass txarteldunak, Bilbaina Jazz Clubeko kideak, Guggenheim Museoaren lagunak, El Correo egunkariko harpidedunak eta BBK-ren txartel gorrildunak. Gainera, egun danetarako abonamendua hartzeko

aukera ere badago, 65 euroan.

Baina musika doan entzuteko aukera ere eskainiko du Jazzaldiak Hirugarren Milurtekoa atalean, esan legez, Geltokia plazan. Taldeak izango dira: hilaren 3an Stromboli (Valladolid), 4an Itxaso 5et (Euskal Herria), 5ean Chacon/ Tejada/ Krause Trio (Madril), 6an De Beren Gieren (Belgika) eta 7an Nomadic Nature (Herrialde Katalanak).

Gainera eta hori dena gitxi balitz, oraindino badago ekitaldi eta emanaldi gehiago. Izan ere, Algortako The Piper’s Irish Puben Jam Session saioak antolatu dituzte uztailaren 4, 5 eta 6an, Albert Vila Quartet taldeagaz. Satistegi tabernan, barriz, Esther Cidoncharen argazkiak ikus daitezke uztailaren 7ra arte. ○

Info+: www.getxo.net

Herrian kontsumitzeko

kanpaina zabaldu da Getxoko saltokien artean



Daborduko 400 saltokik bat egin du ekimenagaz, erakuslehoan kartela ipiniz

Delako krisi ekonomikoari eguraldi txarra batu zaio udabarrian eta merkataria estu dabilta. Hala, ezereen zain egon beharrean, elkartu eta ekimenen bat abiatzea hautatu dute, adibidez, Algorta auzoan. Saltoki askotan ikusiko zenuen kartela: “Kontsumitu herrian”. Asmoa da getxoztarrak herriko saltokietan kontsumitzera bultzatzea, saltoki handietara jo beharrean, horrela lana sortzen laguntzeko eta itxierak saihesteko.

Sarrikobaso kale inguruko lau merkatariren artean sortu zen ideia eta, daborduko, 400 saltokitan ipini dute kartela. Gainera, Getxoko beste auzo eta inguruko herrietatik ere hurbildu zaizkie dozena bat merkatarikartel eske. Amaia Gaztañaga da hasierako laukoteko bat, eta dendaz denda ibili da ekimena azalduz eta

horretan parte hartzerantz animatuz: “*Ekimena salmenta nahiko geldi dagoelako hasi zen*”. Gainera, gazteak gero eta gitxiago sartzen ei dira saltoki txikietara: “*Asko jotzen dute saltoki handietara eta internetera, eta saltoki txikietan pertsona nagusiak besterik ez dira sartzen, nire inguruan behintzat*”. Gaztañagak dioenez, kartelen eragina nabaritzen hasi dira, pertsona batzuk hurbiltzen hasi dira-eta herrian erostera.

Kartela inprimatzen hasi zirenean merkatarikartelak 13 euro ordaindu zuen baina, eskatutako kartel kopurua handitu ahala, prezioa merketu zen, uste baino diru gehiago batuz. Orduan, zer egin diru haregaz? Bada, janariz betetako orga bideratu dute Caritas elkartearen elikagai-bankura: janari beharra duten herritarren artean banatzen ditu elikagaiak. ○

EUSKAL FONDOA DIRUZ LAGUNDU DU GETXOK

Getxoko Udalak 42.457 euroko diru-laguntza emon dio Euskal Fondoari, euskal entitate kooperatuen elkarteari, Nikaraguako Tipitapa herrian saneamendu eta euri-drainatze proiektu baterako. Proiektuaren helburua da “*umeeen eta talde ahulen sabel eta amasketak gaixotasunen eraginak murriztea, eta euriak herritarrengan eta eraikinetan sor ditzakeen kalteak saihestea*”. Horrek danak 2.675 onuradun izango ditu. Getxo 2001ean sartu zen Euskal Fondoan eta orain arte sustatutako jarduera gehienak Nikaraguako Tipitapa herrian izan dira.

SAN NIKOLASEKO APARKALEKUA ZABALIK

Urtetako lanen ostean, azkenean zabaldu dute Algortako San Nikolas plazako lurpeko aparkalekua: hiru maila eta 5.736 metro koadro dauka. Beheko bi mailatan Getxoko bizilagun, langile eta saltokientzako 105 plaza dago, horietako lau elbarrituentzat. Lehenengo maila, barriz, Getxo Antzokiarentzat gorde dute. Bizilagunak hasi dira aparkalekua erabiltzen, baino oraindino badaude lekuak libre. Horietako bat eskatzeko herritarren arretarako bulegoetara jo behar da: baldintza-agiriak bulegoetan eta Ondare sailean eskura daitezke. Gehienez 25 edo 50 urterako emongo dituzte: 25 urte erabiltzeko 17.021 euro ordaindu behar da eta 50 urte erabiltzeko 23.081 euro.

Info+: www.getxo.net

RASPASEK 7 DOMINA LORTU DU EUSKADIKO ARRAUN TXAPELKETAN

Arraunketa Olinpikoko Euskadiko Txapelketan zazpi domina lortu du Areetako Raspas taldeak: urrezko 4 eta brontzezko 3. Taldeko 23 arraunlarik parte hartu du txapelketan, kategoria desberdinetan. Gizonezkoen 8+ absolutuen taldea, barriz, lehiaketatik kanpo zegoen, horren txapelketa duela gitxi jokatu zelako, baita Raspasek irabazi ere.



Kalitatea eta moda prezio paregabeetan

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

Anton Txapartegi > Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Arautzaileko idazkaria

“Bost urtean ekoizpena bikoiztu dugu: taldea garatu eta upategiak profesionalizatu dira”



Txapartegi kontseiluaren egoitzaren aurrean, Leioako Mendibile jauregian

Bizkaiko Txakolina gero eta baloratuago dago, gero eta preziatuagoa da. Getxoztarrek bizkaitar produktua dastatzeko aukera izan zuten ekainaren 8an Algortan, Bizkaiko Txakolina jaialdian eta, ekimenagaz, ardoaren “*sekretuak, barietateak eta kalitatea*” ezagutzera emon gura izan du Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileak. Hain zuzen, sekretu horiei buruz galdetu diogu Anton Txapartegi kontseiluko idazkariari. Argitu digunez, Bizkaiko Txakolina jatorrizko deituraren barruan daude 48 upategi eta 370 bat hektarea, Bizkaia osoan banatuta.

—Zelan joan da jaialdia?

—Balorazio oso positiboa egin dugu, garrantzitsua da ostalaritzagaz eta kontsumitzaileakaz harremanetan egotea. Bertaratutakoak jakitunak izan dira, nabaritzen zen txakolina ezagutzen zutela eta hori eskertzekoa da.

—Zer behar du ardo batek Bizkaiko Txakolin izateko?

—Europak onartutako jatorrizko deitura da: Bizkaiko Txakolina etiketa eroateko kontrol nahiko igaro behar du ardoak, mahastiek deituran izena emonda egon behar

dute, deituraren araudiak ezarri mahats barietateak erabili behar dira, kalifikazio-erakundeak ikuskatu behar du eta, azkenik, gure kalifikazio-dastatzea eta kontrol kimikoa gainditu behar ditu. Kontsumitzaileak hau dena ezagut dezan gura dugu, izan ere, oraindino apur bat ezezagunak gara. Pertsona batzuek aurreiritziak dauzkate duela hamarkada batzuk zegoen txakolinagaz lotzen dutelako, baina egungo txakolinak ez dauka zerikusi handirik haregaz. Gainera, gaur egun txakolin motak egiten dira: aperitibo edo poteorako, bazkaltzeko, e.a.

—Zer desberdintasun dauka beste txakolinakaz alderatuta?

—Arabakoagaz ez dauka alde handirik, baina Getariaikoagaz bai. Hangoa apurtu egiten dute zerbitzerakoan eta arinagoa izaten da, alkohol gitxiagagaz.

—Burgoseko ardo batzuk txakolin izen-

«Txakolin terminoa lotuta dago jatorrizko deitura duten ardoakaz»

datu gura zituzten, zergatik ez?

—Europar Batasuneko araudi batek ezartzen du txakolin terminoa lotuta dagoela jatorrizko deitura daukaten ardoakaz, beraz, ezin erabil dezakeela edozein ardo motak. Txakolina atlantiar klimari lotuta dago, hark baldintzatzen du zer mahats barietate erabili. Gure lurrera egokitzen diren mahatsak ez dira egokitzen Gaztela edota Errioxako klimara, eta alderantziz. Txakolina egiteko erabiltzen diren barietateak atlantiar eremukoak dira, hemendik eta Bordele-raino edo hazten direnak. Beste zonaldeetako ardoek bestelako ezaugarriak dituzte, beraz, gure ustez ezin dira txakolin deitu.

—Gero eta preziatuagoa da txakolina?

—Bai, horren lekuko ekoizpen-zenbakiak; duela bost urte 800.000 litro inguru ekoizten genuen eta, egun, 1.600.000 litrotik gora. Bizkaian kontsumitzen da horren %80 edo %90, baita beste herrialdeetako txakolinak ere. Kolektibo gisa garatu eta upategiak profesionalizatu dira.

—Eguraldiak uztari kalte egingo dio?

—Aurten ziklo begetatiboa atzeratu da eta uzta ere atzeratuko da. Gainera, une hau delikatua da oso: mahastia loratuko da eta hainbeste eurik ez dio onik egingo. Beno, ea uzta salba dezakegun! ○

Info+: www.bizkaikotxakolina.org

Labur esateko...

Gaurik laburrena uztailaren 8an eta 9an izango da; **euskarazko** filmak **martitzenean**



Aner filmeko irudia, Unai Garate getxoztar egilearena

Udako epelak lagunduta zinema kalean ikusteko aukera egongo da *Gaurik laburrena* film laburren emanaldian. Algortako Biotz Alai plazan izango da, 21:00etan eta doan: uztailaren 8an gaztelerazko filmak emongo dituzte, 9an euskarazkoak.

Astelehena 8an ondoko filmak emongo dituzte: *Videotutoriales de Borja Perez* (Ruben Ontiveros, 15 min.), *Don Pepe Popi* (Carlos Vermuy eta Venga Monjas, 16 min.), *Molecular zombi* (Pablo Llorens, 18 min.), *Fist of Jesus* (Adrian Cardona eta David Muñoz, 15 min.), *Desafío final* (Manuel Bartual, 18 min.), *Beerbug* (Ander Mendia, 8 min.), *Ventanitas*

(Manuel Bartual, 1 min.), *Loco con llista* (Kepa Sojo, 17 min.), *El hombre birra* (Los Pioneros del Siglo XXI, 2 min.) eta *El ultimo onvre bibo* (Dani Aguirre eta Luna Martin, 10 min.).

Euskarazko filmak, barriz, ondoko bederatzi filmak dira: *Deus et machina* (Koldo Almandoz, 9 min.), *Aner* (Unai Garate, 18 min.), *Tortila* (Iñigo Lopez, 10:30 min.), *Ur jauzi* (Imanol Garaizabal, 2 min.), *Ekaitza* (Alberto Gastesi, 4 min.), *Edozer!* (Iñaki Beraetxe, 7 min.), *Hamaiketakoa* (Telmo Esnal, 4 min.), *Kea* (Lara Izagirre, 12 min.) eta *Elkartea* (Kote Camacho, 16 min.). ○

X. TXALAPARTA-JAIA ZAPATUA 29AN

Hamar urte bete du Algortako Txalaparta-jaiak, hilaren 29an ipini dute aurtengo hitzordua. UKTEST Txalaparta Ekimenerako Sustapen Taldeak antolatzen du eta daborduko prest dauka egitaraua: txalaparta-meditazioa (11:00), txalaparta jotzen hasteko guneak (12:30), herribazkaria eta kantu-saio herrikoia, perkusio-tailerra (17:00), Munduko Beat taldearen ikuskizuna (19:00) eta Guda Dantza taldearen kontzertua (21:00) La Plaza tabernan. Aipatu gainontzeko ekitaldiak San Nikolas eta Biotz Alai plazetan izango dira. Esatea txalaparta bat zozketatuko dutela eta poteoa ere egongo dela.

Info+: txalaparteuktest@gmail.com

JON ASTORKIZAREN ARGAZKIAK TORRENEAN

Jon Astorkiza del Valen irudiak ikustea dago oraindino Algortako Torrene aretoan, *Silencio, se fotografía* argazki erakusketaren baitan. Ekainaren 30era arte egongo da erakusketa Torrenean. Isiltasuna da irudiotako protagonista: “Irudi horiez baliatuta egileak unea bere horretan uzteaz gainera, gogo-aldateak eta sentsazioak adierazi gura ditu lanen behatze-esperientzia aberasteko”.

PORTU ZAHARREKO JAIETARAKO KARTEL-LEHIAKETA

Abuztuaren 9tik 12ra ospatuko dira Algortako Portu Zaharreko jaiak eta kartela behar dute! Lehiaketa abiatu dute diseinua aukeratzeko eta lanak aurkez daitezke ekainaren 27ra arte, Villamonteko kultur etxean. Kartelerako testua da “*Portu Zaharreko Jaiak 2013 - Abuztua 9-12*”, eta lanek 70x50 cm-ko neurria izan behar dute. Jai Batzordeko kideek eta bertoko artistek osatuko dute epaimahaia, eta 6 kartel aukeratuko dituzte. Ondoren, uztailaren 4an egun osoz bozkatu ahalko dute herritarrek lanik gogokoena. Egun amaieran erakutsiko dute irabazlea.

Info+: portuzaharra.kartelak@gmail.com

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Susana Ruiz del Campo > Leioa Mendi Taldeko presidentea

“Eguraldi txarra egon arren beti urteten gara mendira, ibilbidea moldatu behar bada ere”

Ibilbide luzea dauka Leioa Mendi Taldeak: 22 urte eta 700 bazkide. Osasuntsu dabil eta ekain erdialdean Mendi Astea egin du. Aitzakia horregaz hurbildu gara eurengana, taldeari buruz gauza gehiago jakin guran; Susana Ruiz del Campo presidenteagaz berba egin dugu.

—Zelan doa Mendi Astea?

—Nahiko ondo. Egunotan egin ditugun ekimenetan parte-hartze handia egon da, adibidez, iaz baino ikusle gehiago egon da Mendi Tour film emanaldian. Astelehenean hitzaldia eskaini zuen Rafa Martinezek eta ikusle asko hurbildu ziren. Erakusketa bat ere ipini dugu Kultur Leioako Ambigun gure bazkide batek egindako margoakaz, eta Groenlandiari buruzko hitzaldi-emanaldian ere aretoa nahiko bete zen: oso pozik gaude orain arteko ekitaldiakaz. Azken finean, taldearen asmoa da geure burua ezagutzera emotea Leioan, herritarrek mendi-urteeretan parte hartzea anima daitezen.

—Horiek dira zuen egiteko nagusiak, urteerak eta ikastaroak antolatzea?

—Zuzendaritza batzordean 11 lagun gaude. Iaz barritu genuen eta hiru pertsona aukeratu genituen eskalada-atala



Info+: www.leioamenditaldea.com

kudeatzeko, izan ere, bazkideen erdiak mendizaleak dira eta beste erdiak eskalatzaileak, danatara 700 gara. Beraz, oso pozik gaude. Leioako kiroldegian *boulderra* dago eta geuk kudeatzen dugu, gainera, nahiko ezaguna da inguruan. Urte akabuan biltzen gara eta urteko urteeren egutegia adosten dugu, bazkideen proposamenak aintzat hartuta. Normalean 15ean behin egiten ditugu txangoak, eta aste akabu osoko urteerak ere antolatzen

ditugu. Adibidez, Mendi Astea amaitzeko Burgoseko mendi batera joango gara, domekan, eta ekainaren azken aste akabuan Europako mendietara, Asturiasera, mendi bi igotzera. Gure helburua da mendi-zaletasuna sustatzea herritarren artean; jende askok esaten digu zoratuta gaudela eguraldi txarra dagoenean urte-ten garenean. Izan ere, euri ala eguzki, beti urteten gara. Oso txarto egonez gero ibilbidea moldatu eta kito. ○

Euskara Plana onartuta

2013-2017 epealdirako plana osatu dute eta **hamaika proposamen jasotzen** ditu



Info+: www.leioa.net

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu du Udalak 2013-2017 epealdirako. Elhuyar taldeak garatu du eta hamar lan-lerro zehazten ditu, hiru helburu estrategikotan banatuta: euskararen jabe-kuntza, erabilera eta elikadura. Helburua da “*esparru guztietan euskara gehiago erabiltzea eta leioaztarrek euskararen aldeko subjektu aktibo bihurtzea*”.

Euskararen jabe-kuntzaren esparruan proposatzen ditu, besteak beste, gurasoak sentsibilizatzeko kanpainak eta guraso-lagun ekimena, gazteak euskaraz egitera bultzatzeko dinamikak, euskara ikasteko diru-laguntzak, ikastaroak euskaraz, e.a.

Erabileraren esparruan, barriz, merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabi-

lera handitzeko ekimenak, euskal udalekuak, www.beharsarea.net, Olgetan programa, Erdu Berbetan, e.a.

Eta euskararen elikaduran, euskara zine-aretoetara hurbildu, euskarazko ekitaldiak, Gazte Eguna antolatzeko baliabideak, Abenduaren 3an ekitaldiak egin, itzulpen eta zuzenketa-zerbitzua, ekitaldetarako diru-laguntzak, bizkaiera ikastaroa, euskarazko hedabideak sustatu eta lagundu, teknologia barrietan euskararen erabilera sustatu, e.a.

Gainera, Administrazioan euskararen erabilera-plana egitea jaso da, baita kale-erabileraren neurketa egitea ere. Esandako hau dana hurbilpen txiki-txikia beste-rik ez da, Plana askoz zabalagoa da. ○

GAZTEENTZAKO SKATE-ESKOLA UZTAILEAN

Skate-pista ederra dago Leioan eta aukera baliatu du Aterpe Gaztegunek ikastaroa antolatzeko. Uztailaren 15, 17 eta 19an izango da eta 15 euro ordaindu behar da. Trukoak ikasi, teknika finkatu eta skate-munduan sartzeko aukera bikaina izango dela ziurtatu dute Gaztegunetik. Udaleku irekiak ere eskainiko dituzte berton, 14 eta 17 urte bitarteko leioaztarrei zuzenduta eta, uztailaren 27an, txangoa antolatu dute Plentziara, piraguan ibiltzeko. Ekintzotan parte hartzeko Gaztelekuan emon behar da izena, Aldapabarrena kaleko 2.ean.

Info+: gazte@leioa.net eta 94 405 58 50

LEIOAKO EUSKARA LANTZEKO UNITATE DIDAKTIKOAK ESKURA

Erandioko eta Leioako hizkuntz eta kultur ondareari buruzko unitate didaktikoak argitaratu dituzte Udalek, Foru Aldundiak eta Labayruk, Haur eta Lehen Hezkuntzako umeentzat, eta ikastetxeetan eta liburutegietan har daitezke maileguan. Adinaren arabera banatuta daude eta bertokoakaz egin elkarriketak dituzte oinarri: 500 bideotik gora jasotzen ditu kantuakaz, elkarriketakaz, e.a. “*Ondare etnografikoa eta linguistikoa batu, sailkatu, landu eta Euskal Curriculumean txertagarri den materiala eskaintzea*” da asmoa. (Erandioko orrietan informazio gehiago daukazu).

Info+: www.leioa.net

MASACCI ETA LIZASOREN ERAKUSKETAK EKAINEAN

Erakusketa bi ikustea dago oraindino Leioan, bata kultur etxean eta bestea Ondizko dorre inauguratu barrian. Kultur Leioan Corrado Masacciren *Igelak* erakusteta dago eta bisita gidatuetan parte har daiteke; *Igelak* txotxongilo-eralusketa da. Ondizko dorrean, barriz, Jesus Lizasoren eskulturak ikus daitezke *Figurazioak* erakusketan. Biak bisita daitezke ekainaren 30era arte.

Info+: www.kulturleioa.com

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fierabordas
Mota guztietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargelzaleak, Soinua...
Tf. 94 430 17 81
Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan
F.M. 102.6 Mhz
www.bizkaiairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

Mari Jose Ribate Riaño > Art Libitum elkarteko kidea

“Danok daukagu artista txikia barruan, horregatik ume danek parte har dezakete”

Umeentzako Muak programa, eskainiko du, beste behin ere, Art Libitum elkarteak uztailean. Tailer artistikoa da, 4 eta 12 urte bitartekoentzat, eta Astrabuduko kultur etxean egingo da. Artea era dibertigarrian bizi ahalko dute erandioztar gazteek.

—Norentzako da tailerra, zer landuko duzue?

—Iaz egin genuen lehenengoz eta arrakasta handia izan zuen, horregatik eskatu digute aurten errepikatzeko. Umeentzako tailerra da, 4 eta 12 urte bitartekoentzat. Udako eskaintzaren barruan hutsunea sumatu genuen, normalean kirola eta aisialdia lantzen da-eta. Guk moduluak eskaintzen ditugu eta elkarri lotuta daude. Lantzen dugu dantza, arte eszenikoak, musika, arte plastikoak, baita erlaxazio-teknikak ere, umeen izaera indartzeko asmoz. Beldur eszenikoa esaten diogu, baina ez antzetzokira atera behar dutelako, baizik eta, teknika horiek laguntzen dutelako eguneroko bizitzan lotsa eta antzekoak gainditzen. Helburu bat ipintzen dugu, azken egunean ikuskizuna egiten dugulako, eta berau lantzen dugu bi astetan. Adibidez, iazko ikuskizuna antzerkiagaz hasi zen, baina jantzi bereziak behar zituzten antzezpenerako;



Art Libitum-ek utzitako argazkia

horiek egin zituzten arte plastikoen modulan. Musika ere erabaki behar zen, beraz, abesti bat ikasi zuten musika-modulan: ikasi zuten bereizten tonu baxuak eta altuak, e.a. Mugimendua ere behar zuen horrek eta dantza-modulan landu zuten. Modulu bakoitza profesional batek emoten du eta umeek asko parte hartzen dute.

—Zenbat egun irauten du programak?
—Hamabostaldi bat izaten da, goizero lau ordu. Hasieran adinaren arabera be-

reizten ditugu umeak, baina askotan elkartzen dira, talde lana indartzeko. oso giro polita sortzen da, beste gauza batzuetan ez bezala, arterako danek balio dute. Danok daukagu artista txikia barruan, horregatik danek parte har dezakete: ez da beharrezkoa musika-tresnaren bat jotzea edo aurretik beste zerbait egiten jakitea. Uda giroan egiten da, ez du eskatzen gehiegizko diziplinarik, jolasten egiten da eta dibertigarria da. Iaz oso pozik geratu ginen danok. ○

Erdu gure euskarara!

Leioa eta Erandioko hizkuntza eta kulturari buruzko unitate didaktikoak argitaratu dituzte



Info-: www.gureondarea.com

“Txiker eta handi euskaraz jantzi!” leloa aukeratu dute, hain zuzen, Erandioko eta Leioako hizkuntza eta kultur ondareari buruzko material barria izendatzeko. Haur eta Lehen hezkuntzarako unitate didaktikoak dira, liburu bik eta DVD batek osatuak, eta herri bietako eskoletan erabiliko dituzte. Liburutegietan eta interneten ere eskuragai egongo dira, gurasoek etxean umeak erabili ahal izateko. Labayru Ikastegiak garatu du materiala, Udalen eta Bizkaiko Aldundiaren laguntzagaz.

Helburua da “Erandioko eta Leioako euskal ondare etnografikoa eta linguistikoa batu, sailkatu, landu, eta Euskal Curricu-

lumean txertagarri den material didaktiko-pedagogikoa eskaintzea”. Herritarrek egindako elkarrizketak dira oinarria eta horien zatiak ikus daitezke atal danetan, hainbat gairi lotuta, bertokoek zelan berba egiten duten entzuteko: 500 bideotik gora daude.

Unitateak adinaren arabera banatuta daude, 0 urtetik 12ra, edukiak eta ariketak desberdinak dira. Halere, atalak finkoak dira eta jasotzen dira: gure berbakera (gramatika, hiztegia, eserak, e.a.), kantak, ariketak eta txorien soinuak. Hirugarren unitetik aurrera Gure herria atala ere bada, bertoko ohitura eta ekitaldiei lotuta. ○

KUKULARRAKO JAIK EKAIN AKABUAN

Ekainaren 28tik 30era ospatuko dituzte auzoko jaiak Kukularraokek eta ekitaldien barri emon digute. Barikua 28an egongo dira, besteak beste, igel-toka, sardina-jana, Tiki Taka irratia. Zapatua 29an, umeentzako parkea, paella-lehiaketa, Moto GP lasterketa, Oliver magoa, eta Munza eta Txitxo DJak. Domeka 30ean, barriz, marrazki eta tortilla lehiaketak, udal musika banda, familiarreko jolasak, eta Patxin eta Potxin pailazoak. Ondo pasa jaietan!

ERANDIO LEHEN ETA GERO ERAKUSKETA

Erandioko IV. Argazki Jardunaldiak izan dira hil osoan eta, amaitzeko, erakusketa antolatu dute Astrabuduko Radio Club Takolos taldeko lagunek: Erandio lehen eta gero. Hortaz, ekainaren 24tik 28ra ikus daitezke Radio Clubeko partaideen argazkiak, Astrabuduko kultur etxeko erakusketa-aretoa. Ez galdu herriko historian murgiltzeko aukera.

Behargintza: Mendibile kalea, 3

ASIRAKO EUSKARAZKO PRODUKTUAK ESKURA

Euskara etxeko ekimena abiatu du Euskara Zerbitzuak, herriko ikastetxe eta liburutegiak batera. Asmoa da “aisialdirako euskarazko produktuak ezagutzera emotea eta erandioztarrei aukera emotea horiek erabiltzeko”. Horrela, joko, liburu, CD eta DVD banagaz osatutako poltsak erabilgarri daude liburutegietan, baita ikastetxeetan ere: zortzi poltsa Haur Hezkuntzari bideratuta daude eta beste zortzi Lehen Hezkuntzara. Danak dira desberdinak, beraz, batagaz jolasten amaitutakoan besteren bat eska daiteke. Poltsak maileguan har daitezke, bai ikastetxeetan, bai liburutegietan. Gainera, euskarazko produktuen katalogoa ere eskuragarri dago liburutegietan, “produktu gehiago ezagutu ahal izateko”.

Info-: www.katalogoa.org



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelkatzea, soropila gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautera, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea



Udako trinkoak eta barnetegiak

Uribe Kostako AEK
94 430 47 34 • lauaxeta@aek.org • www.aek.org



“GURASO BIHURTU GARA, ETA ORAIN ZER”

Hilaren 26an, eguaztenean, arrastiko 19:00etan Kurtzio Kultur Etxean “Guraso bihurtu gara, eta orain zer” hitzaldia eskainiko dute; bertan, guraso barriek izan ditzaketen zalantzen eta galderen erantzunak emoten ahaleginduko dira.

LARRABASTERRAN
SEGURTASUN NEURRIAK

Sopelako Udalak baimena eskatu dio Bizkaiko Foru Aldundiari oinezkoen lau igarobide goratu ipintzeko titulartasun forala duten BI-634 eta BI-3124 errepideetan; bertako auzokideen irisgarritasuna, segurtasuna eta mugikortasuna hobetzeko asmoz. Hala, Sopelako alkateak eskutitz bat bidali zion Bizkaiko Foru Aldundiko bide-azpiegituren zuzendari orokorrari esanez, udalerrian gaur egun dituzten bide-azpiegituren problematika dela medio eta kontuan hartuta azpiegitura horiek, beharrezkoak direla segurtasun neurriak ezartzea.

SOPELBUSAK, UDAKO
ORDUTEGIA

Sopelbusak, Sopelako auzoak metro geltoki eta hondartzakaz lotzen duen autobusak, udako ordutegia martxan jarri du. Ordutegiak irailaren 15era arte iraungo du. Gainera, aurtengo ordutegiak barritasunak dakartza; izan ere, autobusak joan-etorriak egingo ditu goizeko 07:00etatik iluntzeko 20:00 arte, eguerdian ere, atsedenaldi barik. Bestalde, udako ordutegian ere, 10:00etatik 20:00etara sopeloztarrek eta bisitariak autobus bi izango dituzte eskura. Lehenengoa Larrabasterratik urtengo da eta Arriaterara helduko da, bigarrena Nagusien egoitzatik atera eta Atxabiribileko aparkalekura helduko da, ordu erdiko maiztasunagaz. Aurten, hondartzara joateko ordutegi aukera zabalagoa izango da.

Info+: www.sopelana.net

Hemen dira *sanpedroak*!
Hamaika jarduera antolatu ditu Sopelako Jai Batzordeak **sopeloztar guztientzat**



Egitarau osoa: www.sopelakojaiak.blogspot.com web-orrialdean

Konturatu barik, urte osoa igaro eta barriro ere, Sopelako *sanpedroak* heldu zaizkigu. Eta horiek behar bezala gozatzeko Sopelako Jai Batzordeak egitarau zabala antolatu du. Hasteko, ekainaren 27an 19:30ean koadrilek jaiei hasiera emongo diete jaitsieragaz, eta ondoren, ordu bat geroago pregoia eta txupinazoa udaletxeko plazan izango dira, 20:30ean. Gauean, barriz, Marmoka Baltzak eta Zuloak taldeek doinua jarriko diote Sopelako jaietako lehen gauari. 28an, barriz, goizez eta arrastiz Zipiriñeko parkean txikientzako asko-

tariko tailerrak antolatu dituzte, egun horretan, gauetz Ze esateki! eta Ukan taldeen kontzertuak ikusgai izango dira. Zapatuan, San Pedro egun goizean, 10:30ean kalejira egingo da udaletxetik elizaraino trikitilari, dantzari eta erraldoiek lagunduta. 14:00etan, barriz, herri-bazkaria izango da, eta eguna amaitzeko, 23:00etan Skakeitan taldeak udaletxeko plazan joko du zapatuan ere, 24:00etan su artifizialek Sopelako zerua hartuko dute. Domekan 12:00etan fami-
li-
entzako herri-kirolak izango dira Zipiriñeko jolas-parkean. ○

Plaza Beltza elkarte > etxe-aldaketa

“Lokal motaren arabera diseinatuko dugu Plaza Beltzaren etorkizuna”



Kolektibo, elkarte eta norbanako askok lokala erabili dute jarduera anitzetarako

2009an Plaza Beltzak Akilino Arriola kalean duen lokala ireki zuen, lau urte ostean, ateak ixtera doaz; ez luze, baina, irrikan baitaude etxe barria topatzeko.

—Lokala irekitzeak zuen helburua lortu du?
—Gure helburua kontzientzia kritikoa zabaltzea zen, hau militantzia politikora bideratuz. Horretarako, formazio eta autoformazio teorikoak sustatu nahi ditugu tresna politikoak eskainiz. Herri-mugimendua indartsu ez dagoen garai honetan horrelako lana garrantzitsua dela uste dugu-eta, hainbat gauza hobetu behar ditugula dakigun arren, egin-dako lanagaz pozik gaude.
—Zergatik lokala itxi?
—Lokala ixteko arrazoi bakarra alokai-ruaren amaiera izan da. Jabeak lokala behar du, eta kontratua amaitzean epe luzerako berritu beharrean, guk nahi genuen bezala, ekain amaiera arte baino ez

digu luzatu. Beraz, laster hemendik goaz, baina beste nonbait egongo gara.
—Lokalik ez izateak zein eragin izango du Plaza Beltzaren jardunbidean?
—Kolektiboa sortu genuenetik Kultur-gunea ireki genuen arte hiru urte pasatu

«Laster hemendik goaz, baina, beste nonbait aurkituko gaituzue»

ziren, denbora horretan lokalaren obran ibili ginen. Hasten geunden eta kanpoko jarduera eskasa zen. Orain, barriz, guztiz osatuta dago proiektua eta atzetik ibilbi-dea daukagu. Horri jarraipena emongo diogu. Ezin dugu esan nolakoa izango den etorkizuna lokal motaren arabera di-seinatuko dugulako. Halere, laster dena argituko dela esan dezakegu...
—Betiko lokalean ez, baina txosnetan...
—Sopelako jaiak datoz, eta gure txosnan izango gara. Gainera, bertan salduko ditugun produktu batzuk hemen ekoitzi-takoak izango dira, erronka polita! ○

DIDAK

hamilton

IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.

Tf. 94 676 30 12

info@didakhilton.com

ANDER DEVNA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA

Tf. 94 676 02 66

Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK

KONTSULTA PODOLOGIKOA

Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4

48600 Sopelana

Tf. 94 404 74 20

CITA PREVIA

oinutsik@euskaltel.net

OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE,OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena

ONGI ETORRI!!

Bentatxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78

Tf. 94 491 27 34

HAUTSONTZI-BANATZEA
HONDARTZA ETA INGURUA
GARBI EGOTEKO

Udagaz batera hondartzara joaten garenez, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Kontsumo Saila eta Jasangarritasun Saila zigarrokin eta errautsez ingurua ez zikintzeko hautsontziak banatzen dabil herritarren artean. Berangoztarrek aukera dute hautsontziak kultur etxean hartzeko, agortu arte; hala ekimen honen bidez Berangoko Udalak, Mankomunitatearen bitartez, Berangoko ingurua, mendiak, hondartzak garbi mantentzea lortu gura du.

BIGARREN ESKUKO
AZOKA EKAINAREN 30EAN

Aurreko alean horren barri emon bezala, laster hemen da Berangoko bigarren eskuko azoka,; izan ere, azoka ekainaren 30ean egingo dute; bertan salgai izango diren produktu guztiak bigarren eskukoak izango dira. Azoka goizeko 11:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte egongo da eliz ondoko landan.

TXIKIENENTZAKO FILMAK
KULTUR ETXEAN

Hil akabuan, ekainaren 29an eta 30ean etxeko txikienekin pelikulakaz gozatzeko aukera izango dute. Hilaren 29an, 19:00etan, *Frankenweenie* pelikula ikusgai izango da Berango antzokian; hilaren 30ean, barriz, 18:00etan *Rio* animaziozko lana proiektatuko dute kultur etxean. Bata zein besterako sarrera sarrera doan da.



JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Parte hartze **foroa**
“Zelako Berango nahiko genuke” hizpide
izan dute **herritarrek parte hartze foroan**



Agenda 21en II Ekintza Plana diseinatuko da datozen 8 urteei begira

Maiatzaren azkenengoan Berangon bigarren parte hartze foroa antolatu zuten. Foro horren helburu nagusia Berango jasangarriagoa lortzeko tokiko agenda 21aren ekintza plana berrikustea zen. Sei urte igaro dira lehen tokiko ekintza planaren indarraldia martxan jarri zenetik, eta Mankomunitateko beste udalerriakaz batera Berangok Berrikuste-prozesuari ekin dio. Agenda 21en ustez Berrikustea udal eragile politiko, ekonomiko zein sozial guztien eta hiritar ororen partaidetzari bidea zabalduz eraiki behar da. Aurretik, otsailaren 1ean berangoztarrek

aukera izan zuten foroaren lehen saio batean parte hartzeko, lehenengo horretan 25 pertsona inguruk parte hartu zuten; maiatzaren 31ko foroan, barriz, 10 pertsona inguruk. Hala ere, proposamen eta ideia nahiko batu ei dira. Azken foroaren lehenengo zatian, bertaratutakoek hizpide izan zuten “2020. urtera begira zelako Berango lortu nahiko genuke” gaia; bigarren zatian, ostera, planaren formula-zio estrategikoa jorratu zuten. Prozesuak aurrera darrai; momentuz planaren zirriborroa osatu dute, oraindik plana guztiz garatu behar dute-eta. ○

Plentziako Izanik elkartea > bielorrusiatik gurera

“Sekulakoa da udan umeek hobera egiten dutela ikustea”



Plentziako herritar eta taberna ugarik jaia antolatzen lagundu dute

Hogei urte daramatza Izanik taldeak Bielorrusiatik udan etortzen diren neskei harrera egiten. Aurten, euren etorrera ospatzeko, uztailaren 3an Bielorrusiatik etorritako nesken eguna antolatu dute. Hala, Mamen Diazek, Izanik taldeko kideak, horren barri eman digu. —Zer dela-eta uztailaren 3an jaia? —Urtero zerbait antolatzen dugu, baina aurten jaia osatuago prestatu dugu, festa herrian ezartzeko; izan ere, hemendik aurrera urtero uztailaren lehen asteburuan egiteko asmoa daukagu. Polita da haurrak hemen daudela, eurentzako jaia antolatzea. Herri osoaren laguntzagaz antolatutako jaia da, eta aukera polita da haurrek herriko jendea ezagut dezaten, baita gainerako umeak ere. —Hogei urtez, denbora luzez, neskatxa bielorrusiarrak herrian hartzen... Orain dela hogei urte Izanik sortu zen, pentsatu genuen garai hartan Chernobyl

byleko zentral nuklearraren hondamendiak ekarritako ondorio lazgarriak arintzen laguntzea; hala, neskatxak Bielorrusiatik Plentziara ekartzea modu bat izan zitekeela. Ordutik, udaro 12 neskatxa etortzen dira, talde batek hiru

«Udaro 12 neskatxa etortzen dira, talde batek 3 udaldi egiten ditu»

udaldi egiten ditu. Aurten ekainaren 22an etorriko dira, eta abuztuaren 8an joango dira. Oso positiboa da esperientzia: umeen organismoa garbitzen da, jaki ez kutsatuak jan eta aire garbia arnasten dute. Udaldian hobera egiten dutela ikustea sekulakoa da! —Zein da jaiaren egitaraua? —18:00etan haurrentzako tailerrak, eta azoka txikia eleiz plazan. 19:00etan, bertan, parrillada eta txokolate-jana. Eta 20:00etan diskoteka-jaia. ○

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 -6 • regaraizar@euskalnet.net
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 • ALGORTA

**COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.**


Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

**zaindu**
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779



UMEENTZAKO UDAKO
IKASTAROAK GORLIZEN

Udan, etxeko txikienek ez dute aspertzeko betarik izango; izan ere, hainbat dira udalerrian uztailean eta abuztuan antolatu dituzten tailerrak: birziklatzea, pintura eta zeramika, besteak beste. Horietan guztietan parte hartzeko epea zabalik egongo da leku guztiak bete arte. Birziklatze-tailerra martitzenetan izango da 10:30etik 11:30era, pintura-tailerra, ostera, eguaztenetan ordu berean, eta zeramika-ikastaroa barikuetan aurrekoen ordu berean, 10:30etik 11:30era, hain zuzen. Ikastaro bakoitzean hil osoan jarduteak 16 euro balio du. Horrez gainera, 5-12 urte bitarteko haurrak ludotekara joan ahalko dira 10:30etik 12:30era astelehenetik eguenera.

EKOGUNEK KANPOKO
LANDAREEN ARRISKUAZ
OHARTARAZI DU

Ekogunek ohartarazi du azken urteetan zenbait espezie kontrol barik hedatu direla, espezie horien artean, besteak beste, *Budleja davidii*, *Bacharis halimifolia*, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia* eta *Cortaderia selloana* daude. Hala, ekogunek jakinarazi gura izan du landare horiek gure inguruko leku guztiak kolonizatzen dabiltzala, eta oso zaila dela horiek errotik kentzea, horrek sekulako lana eskatzen duelako. Hori dela eta, Ekogunek horrelako landareak ez landatzeko ezta zabaltzeko ere herritarren lankidetzaz eskatu du.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Uribe Kosta

Uztailaren 4an, Plentzia eta Uribe
Kostako historia-jardunaldiak



6 urte daroaz Plentzia eta Uribe Kostako gaiak plazaratzen

Aurten ere udagaz batera, Plentzia eta Uribe Kostako VI. historia eta ondare jardunaldiak heldu dira. Oraingoan, jardunaldiek Uribe Kosta Butroe aldeko natura eta ondare baliabideak aztertzea proposatzen dute. Hala, egingo diren jardunaldiek ekarpen zientifikoa egin gura diote une honetan Eusko Legebiltzarrean bideratzen ari den Uribe Kostako eta Butroe aldeko Lurralde Antolameduko Planaren proiektuari, bertako landa eta itsaslabarrak aztergai dituen, hain zuzen ere.

Horretarako hainbat dira landuko dituzten gaiak uztailaren 4an, eguenean; hasteko, arrastiko 18:00etan Txipioko padurara bisita gidatua antolatu dute. Urteera Plentziako zubitik abiatuko da, eta txangoaren gidaria Alejandro Cearreta izango da, Itsasertzeko Geologia-irakaslea. 19:30ean, ostera, Isabel Zarauzak, Plentziako alkateak, jardunaldien aurkezpena egingo du, eta horren

ostean, ordu laurden geroago, “Aurre-historia Uribe Kostan” gaia jorratuko dute Joseba Riosek, Burgoseko Giza Eboluzioaren Ikerketaren Zentro Nazi-onaleko kideak eta Diego Garatek, Bizkaiko Arkeologia Museoko kideak. Jardunaldiei amaiera emoteko, mahaingu-

«Txipioko padurara
txangoa, aurrehistoria,
natura eta ondarearen
inguruko hitzaldiak»

rua izango da; bertan, Uribe Kosta Butroe aldeko natura eta ondare baliabideak aztertuko dituzte. Hainbat dira eztabaida horretan parte hartuko dutenak: Iñaki Ortigosa Txipio Bai elkarte-ko kideak, Diana Plaza Astondopunta taldeko kideak, Diego Anderrez Berdeak taldeko partaideak. Horrez gainera, eztabaida-moderatzailea Jose Ramon Ortiz Perez izango da. Hortxe aukera gure inguruaz ikasteko! ○

Eka. 24 - Uzt. 10

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

ERANDIO

► **Erandio lehen eta gero, argazkiak.** Ekainaren 24tik 28ra. Astrabuduko kultur etxean.

GETXO

► **Uribe Kosta elkarteko ikasleen marrazkiak.** Ekainaren 29ra arte. Algortako azokako aretoan.
► **Silencio, se fotografia.** Ekainaren 30era arte. Algortako Torrene aretoan.
► **Antzezaleak elkarte.** Ekainaren 24tik 29ra. Algortako kultur etxean.

LEIOA

► **Jesus Lizasoren eskulturak.** Ekainaren 30era arte. Ondizko dorrean.

PLENTZIA

► **Guillermo Ortegaren margoak.** Uztailaren 2tik 15era. Goñi Portalen.

ANTZERKIA

GETXO

► **A Trompicones (Luna Ilena taldea).** Ekainak 29, 19:00etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 3 euro.
► **Pirritx, Porrotx eta Marimotots.** Algortako San Nikolas ikastolaren 50. urteurrena. Uztailak 13, 16:30ean eta 19:00etan. Algortako Biotz Alai plazan. 7 euro.

MUSIKA

ERANDIO

► **Konbo-entzinaldia.** Ekainak 26, 19:30ean. Astrabuduko kultur etxean.



laeko saioko une bat

► **Bertsolaritza**
Badator... bertso-saiorik mundialena!

Bertso-zaleak irrikitan daude, honezkero, Getxoko Bertso Saio Mundialeko gaia jakiteko; horretarako baina, uztailaren 10era eguaztenera arte itxoin behar. Egun horretan igoko dira oholtza gainera punta-puntako sei bertsolari: Andoni Egaña, Jon Maia, Fredi Paia, Xabier Silveira, Sustrai Colina eta Xabi Paya. Ohi legez, Algortako Biotz Alai plazan izango da bertso-saioa, iluntzeko 21:00etatik aurrera. Zaleek ondo dakite: urtero gai jakin bati buruz kantatu behar dute bertsolariek, eta ondo gordetako sekretua izaten da hori. Saioan sorpresa ugari egon ohi da: ikusleen artetik ateratzen diren pertsonaiak, mozorroak, bideoak e.a. Piztu zaizu jakin-mina?

• **Non:** Biotz Alai plazan • **Noiz:** Uztailaren 10ean, 21:00etan

GORLIZ

► **San Pedro eguneko erromeria: sardina-jana, DJak...** Ekainak 29, 19:00etatik 23:00etara. San Pedro plazan.

antolatuta. Ekainak 26, 19:30ean. Astrabuduko kultur etxean.

BERANGO

► **Frankenweenie.** Ekainak 29, 19:00etan. Berango Antzokian, Doan.
► **Rio.** Ekainak 30, 18:00etan. Berango Antzokian, Doan.

GETXO

► **Las mujeres del monte de Arafat.** Ekainak 30, 18:00etan. Algortako Abian kultur elkartearen.

PLENTZIA

► **Plentziako II. Nazioarteko Metraje Laburreko filmen lehiaketa.** Uztailak 5 eta 6, 19:00etan. Eliz plazan.

BESTEAK

SOPELA

► **Hitzaldia: Guraso bihurtu gara, eta orain zer?** Ekainaren 26an. Kurtzio kultur etxean.
► **Kepa Deunaren jaiak.** Ekainaren 27tik 30era.

ERANDIO

► **Kukularra auzoko jaiak.** Ekainaren 28tik 30era.
► **Edizio-tailerra, Astrabuduko Fotoclub elkarteak antolatuta.** Ekainak 25, 19:30ean. Fotocluben lokalean.
► **Estudioko erretratua ekimena, Argazki Jardunaldien barruan.** Ekainaren 28an New Tavern tabernan eta 29an Boss tabernan, Astrabuduan. 20:00etan.

GETXO

► **Txalaparta-jai.** Ekainak 29, egun osoan. Algortako San Nikolas eta Biotz Alai plazetan.
► **Kubatar jai:** **Bi Deak taldea, mojitoak...** Ekainak 28, 20:00etan. Algortako Lainoa tabernan.
► **Letren terrazak.** Uztailaren 1etik abuztuaren 30era.

PLENTZIA

► **Bielorrusiako nesken aldeko eguna.** Uztailak 3, 18:00etatik aurrera. Eliz plazan.
► **VI. Historia Jardunaldiak: Uribe Kosta-Butroe aldeko natur eta ondare-baliabideak.** Uztailaren 4an. Txipioko padurara urteera 17:30ean, eta kultur etxean aurkezpena 19:00etan, komunikazioa 19:45ean eta mahaingurua 20:30ean.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Non eta kalean...

Saskibaloia, futbol, hockey, errugbi, patinaje, tenis, boleibol, dantza... aukera zabala egon zen Getxoko II. Street Culture ekimenean, ekainaren 14an eta 15ean. Udalaren asmoa, herritarrek “*kiroldegietan antolatzen diren jardueretara hurbiltzea*” da. Bardin ume zein nagusi, zertan parte hartu izan zuten adin desberdinetako getxoztarrek. Ekintza gehienak Telletxe kalean eta Biotz Alai plazan izan ziren.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Dantzan

Plentziako Eleiz
enparantzan

Uda iritsi da, gezurra badirudi ere, eta sasoi honetan ospatzen dira herrietako jai gehienak, kaleko erromeriak eta dantzaldiak. Baina ez da gaurko kontua, antzinako ohitura da gurean eta horren lekuko irudi hau: Plentziako Eleiz enparantzan atera zuten argazkia, XX. mende hasieran, eta bertan ikus daiteke jendea dantzan, txistuen doinuari jarraituz. Dantzariak elkar lotzen dituzten zapiak ikusita, *Ingurutxo* izan daiteke dantzatzen zebiltzana. Arropa eta kapela dotoreei erreparatuta, bestalde, Plentziara uda igarotzera etorritakoak emoten dute gehienak; gaur legez atzo.

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

[berbetan]

Ekainaren 6an Areetan eta Algortan, Egizuk eta Getxoko Kultur Etxeak antolatuta, Barry Barrez izen artistikoz ezaguna den Barry Manleyk (Cork, Irlanda, 1961) umore-saioak eskaini zituen. Irlandar-euskaldunak euskara ikasteko prozesuaz, gaelikoaren egoeraz, Irlandaren eta Euskal Herriaren arteko berdintasunez eta ezberdintasunez eta abarrez euskarazko umore-bakarriketak eskaintzen ditu. Manleyk Corkeko eta Lovainako unibertsitateetan ikasi zuen eta hiru eleberri (ingelesez) idatzi ditu; gaur egun ingeles irakasle ere badihardu. Orain buru eta bihotz bakarriketakaz dabil, irailetik batezbesteko astean saio bi egiten ditu; literaturarako denbora barik: *“nahi bai, baina ezin dut... agian orain udan pixka bat lasaiago ibiliko naiz... Momentuz, nire energia guztia komedian daukat”*.

Barry Manley

Barry Barrez, komedian serio!

Testua: **I. Sagarminaga**

—Lehenengo biderrez 22 urtegaz etorri zinen Euskal Herrira?

—Lehen aldiz etorri nintzen orduan, baina ez nintzen geratu. Gero, Parisen, Ipar Amerikan, Australian bizi izan nintzen. 26 urterekin bueltatu nintzen, gero beste urte bat edo kanpoan ibili nintzen, baina gutxi gorabehera bai, geratzeko etorri nintzen.

—Euskara ikasi, gero euskarazko umore-bakarriketak eskaintzen hasi...

—Euskal Herrian bizi naizelako euskara ikasi nahi nuen. Nire kabuz ikasi dut... Hasieratik, hona etorri nintzenetik ikasteko gogoa eta asmoa neukan. Irunen bizi naiz, eta hemen ez da euskara hainbeste entzuten; beraz, komunikatzeko lehenengo erdara ikasi nuen, baina euskararena ere hor neukan... Orduan gazte nintzen eta ez nekien zenbat denborarako geratuko nintzen hemen... baina betidanik erakarri nauen zera izan da; irlandarra izanik ulertzekoa da. Guk ere

gure nortasuna mantentzeko asko egin dugu; agian, hizkuntzaren arlorrean independentzia lortu geroztik ez hainbeste, baina... Ni gaelikoduna naiz, baina momentu honetan euskaraz gaelikoz baino hobeto hitz egiten dut.

—Txikitik ikasi zenuen gaelikoa?

—Bai, eskolan. Kontuan hartu gaelikoa ama-hizkuntza bezala dutenak %3 baino

“Guk nortasunaren alde asko egin dugu, baina hizkuntza... Gaelikoduna naiz baina euskaraz hobeto hitz egiten dut”

ez direla. Gaur egun, gehienok eskolan ikasten dugu, eta arlo-gai edo ikasgai bezala, hau da, hemen euskal Herrian euskara A erduan bezala. Orduan, Irlandan gure eguneroko bizitzan ez dugu hainbeste erabiltzen. Hori desberdintasun nabarmena izan zen niretzat, hemen Euskal Herrian euskara nola era-

biltzen den ikustea, batez ere hemen Gipuzkoa aldean; oso interesgarria eta erakargarria zen niretzat. Eta uste dut alde horretatik Irlandan asko ikas dezagula hemendik. Guk gure nortasuna mantendu dugu, baina... Lehenengo eta behin, miraria da Irlandan oraindik gaelikoa existitzea! Baina, nire ustez, gure nortasuna mantendu dugula eta man-

tentzen dugula gure herri-kirolarekin. Azalpen, agian, bitxia, baina hori da nire ondorioa, ez lar sakona baina...

—Idazten zeundela, umorista zen pertsonaia batek bere buruaz beste egin zuen... eta tragedia horretatik abiatu ei da bakarriketen ekimena...

—Bai, hala da. Garai hartan nobela bat



idazten ari nintzen eta abiapuntua bere buruaz beste egiten zuen komikoa zen; esan daiteke, bai, tragedia bat dela... Nire ustez marra oso fina da, tragedia komedia artean. Azken finean, adibidez, bi ordu barru Ordizian, Goiherrin, egongo naiz, han euskara oso-oso polita hitz egiten dute eta haien aurrean zu zaude, bakarriketan, eta ez duzu esaten baina zentzu batean ulertu-edo egiten da zu momentu hartan hango tiporik dibertigarriena zarela! Eta zuretzat hori kristoren ardura ere bada. Komedia egitea oso serioa da. Niretzat umorea gauza oso serioa da, esan nahi dut, bakarriketak egitea, honetan aritzea. Ez dut uste txorakeriak egiten ari naizenik. Umorea egitea gauza serioa da, eta horrekin batera mezu bat helarazi behar duzula uste dut, eta nola ez ondo pasatu behar dugu... Eta bakarriketak egiten hastea, eta euskararekin lotuta, agian erronka pertsonal oso handia zen, agian arrazoi pertsonalengatik ere bai, baina kristoren erronka zen: irlandarra izanda euskaraz barre eragitea ea posible zen... Kanpotar guztiontzat, edo hona etorri direnentzat oso zaila da edo oso ezberdina da hizkuntza, eta horrez gain, euskaldunek agian ingelesez *stand up comedy* delakoa ez duzue hainbeste egiten hemen; eta niretzat hori oso interesgarria zen. Adibidez, niri asko gustatzen zait bertsolaritza, baina kanpotik ikusita oso zaila da; zuk kanpotar bezala, ezin duzu sartu... Bakarriketa, esandako *stand up comedy*, gazteleraz ere, baina hemen, euskaldunak zer gertatzen da? Bakarriketa bai ala ez? Eta nola? Eta baiezkoan, hala hasi nintzen, lagun bati esker, Oiartzunen egiteko aukera eman zidaten, gazte-txean, orain dela bost urte dagoeneko. Nire bikote ohiak, eta ohia azpimarratuta, esan zidan “*euskaraz?! Eres tonto, ¿o que?!*”. Eta nahigabe, noski, baina animatu egin ninduen! Gero, beste leku batzuetatik ere joateko eskatu zidaten, eta orain dagoeneko bi urte jarraian daramatzat bakarriketak eskaintzen. Algortan baka-

rrik egon nintzen, baina orain normalean beste lagun batekin aritzen naiz, *Euskalduna naiz eta arraro nago* emanaldia eskaintzen dugu. Bakoitzak hiru bakarriketa egiten ditugu, 15 minutuz bakoitza, 45 minutu. Ni oso gustura nabil, eta jendeari eskertzen diot, batez ere Euskal Herrian Euskarazkoei, oro har eurak direlako saioen antolatzaileak. Leku

“Miraria da oraindik gaelikoa existitzea! Uste dut nortasuna mantendu dugula herri-kirolarekin; azalpen bitxia...”

askotan egon gara, normalean 50 lagun inguru batzen dira ekitaldietan, beste batzuetan 200 edo 10 ere bai, baina niri berdin dit horrek, leku berriak ezagutzea gustatzen zait, eta uste dut gero eta hobeto egiten dugula! Esaterako, Egizuk Algortan antolatu zuen saioa goizean izan zen, 09:00etan; 100 lagun edo hurbildu ziren, eta goizeko 09:00etan haiei guztiei barre eragitea erronka ere bada. Baina, uste dut lortu genuela. Eta oso polita da. Gainera, ni beti ari naiz gauzak idazten, eta gauza berriak gehitzen... Gustatuko litzaidake irailerako beste monologo berri bat plazaratzea, eta izenburua edo izango luke: *ei zuek, zenbat euskaldun mota dau-de?* Eta hori bai, agian orain arte, harrigarria izan daitekeelako edo irlandar bat euskarazko bakarriketak egiten aritzea...

“Irailerako beste monologo berri bat plazaratu nahi dut; horrekin ikusiko da ea honetan ona naizen ala ez...”

Bada rockstar-ei gertatzen zaiena lehenengo diskoarekin edo ezagun egin baina gero... Horregatik, berriarekin ikusi nahiko nuke nola hartzen den, orain arte harriagarria edo delako funtzionatu ahal izan duelako, eta bigarrenarekin ikusiko da ea honetan ona naizen ala ez... Nik nahiko nukelako jarraitu, nahi dudalako hone-

tan hala serio aritu, eta horregatik hurrengo edo bigarren hori izango da inportanteena niretzat. Halere, oraingo saio guztiak ere ez dira berdinak, beti ari naizelako gauza berriak sortzen, gehitzen, txiste berriren bat sortzen... Hori ere oso interegarria da niretzat. Liburuak idazten dituzunean, beno hau beste prozesu bat da, honetan harreman zuzena duzulako

ikusleekin; hori asko gustatzen zaidan gauza da. Eta gauza da ia hasieratik ikusten duzula gustura dauden ala ez. Eta hori da komedia, gustatzen zait, pixka bat *cowboy* bezala, zu bakarrik, aurrera joan ala ez... Batzuetan, noski, gauzak txarto joan daitezkeelako, edo ez zaizkizulako hain ondo atera... Eta horietatik ere ikasten duzu, nik egin bitartean ere ikasten ari naizelako; Voltaire-k esan zuen bezala, “*al levantar la pluma, es como un acto de rebellion*”. Eta guztiz ados nago. Eta uste dut komedia egiten ere bai... 45 urterekin hasi nintzen komedia egiten; zenbat eta zaharrago orduan eta erosoago bihurtzen omen zara, gauza berririk ez duzu egin nahi edo... Eta ni ez nengoen horrekin ados. Ez nuke esango honegatik iraultzailea naizenik, baina beno. Eta nahiko nu-

bada ni langileena izango nintzatekeen... Nik hizkuntza aldea ere zaindu behar dudalako. Oso bromazalea naiz, beti izan naiz, eta nire eraginak hemengoak eta Irlandakoak dira, hemengoak eta hangoak, eta nire hizkuntzatik ere edaten dut. Orduan, askotan erdi itzulpenak egiten ari naiz, eta kontuan hartzen ea horrek euskaraz funtzionatzen duen ala ez; ho-

“Euskaldunek zergatik botatzen dituzue txisteak beti erderaz?! Halere, umorea ez da txisteak bakarrik!!!”

rregatik, hori ere asko zaindu behar dut, eragin asko ditudalako, eta gauzak nola esaten ditudan asko zaindu behar dut... Orain, martxotik, irakasle partikularrarekin ari naiz, etxean AEK-ko irakaslea, baina gure klaseak ez dira ohikoak, hau da, nik proposatzen diot gaur hau egin nahi dut honengatik eta... Eta zorte izugarria daukat irakasleak laguntzen didalako asko guztiarekin, are gehiago ideak ere botatzen dizkit, eta hori asko eskertzen dut. Hasi ginenetik oso emankorra izan da niretzat. Batzuetan lehenengo idatzi egiten dut, gero zuzendu, ondu, findu... Eta hitz-jokoak ere lantzen ditut berarekin. Autodidaktikoa naizenez gero, neure buruari esaten diot: ni irlandarra naiz, nik euskaraz bizi nahi dut eta niretzat garrantzitsuenetakoa komunikatzea da, hitz egitea; ez daukat EGARIk, eta ez dut nahi

Euskara Gaitasun Agiririk, euskara gaitasuna izan nahi dut ez agiririk! Nik jendetak hitz egitea nahiko nuke, agiririk edukitzea baino. Eta alde horretatik kristoren lana dugu! Baina, uste dut, posible dela! Hori da nire mezua, azken finean. Baina, jendearen aurrean nagoenean, nire egin-beharra da barrea eragitea, hori argi eta garbi dut; orduan, kantatu ere egiten dut,

aitonaren eskusoinua eramaten dut leku guztietara, orain dela urte bat bakarrik hasi nintzen jotzen... Kanta, musika, olerkiak, poesia pixka batez osatzen ditugu gure saioak, tira, denetarik! —**Baina, gurean ez dira oso ohikoak umore-bakarriketak, eta gune hori euskaraz irabaztea...** —Beno, ez dakit... Baina, euskaldunak oso umoretsuak zarete! —**Benetan?! Hotzak garela diote...** —Ez nago ados. Batzuetan gauzak nahasten direla uste dut... Baina, askotan jendeari esaten diot: “*euskaldunek zergatik botatzen dituzue txisteak beti erdaraz?!*” Halere, egia da, gurea, eta umorea ez da txisteak bakarrik, umorea beste gauza bat da! Gogoratzen dut mendi-talde batean ibili nintzenean, goizeko 08:00etan gertatzen ginela, eta ordu horietan mendira

eta kar-kar-kar... Nik “*jode, mekauendies, ezin dut, eta hauek nolako umorea!*”. Txisteak ordea beti erdaraz; ez dakit zergatik, ez nago ziur, agian hezkuntzagatik izan liteke, edo euskaraz ez dagoelako bat-batekotasun hori erdaraz bezala, iraintzeko moduan ezta ere.... Hori alde batetik, eta bestetik, “euskaldun txintxo”-arena edo... Hori ere lan daiteke, baina ez dakit hau izaera kontua den, oztopo bat ala ez... Baina, *stand up comedy* edo gaztelerako *Club de la comedia* formatu txiki eta uste dut oso barregarria dela, niri asko gustatzen zait!!! Erdaraz ere bai, baina nik ez dut egiten, nik euskaraz bakarrik egiten dut, beno, ingelesez ere bai batzuetan, baina gazteleraz orain arte ez dut inoiz egin, eta ez dakit inoiz egingo dudana... Azken finean, uste dut posible dela euskarako umore-bakarriketen eskaintza hau zabaltzea, bai... Euskal Herria mundu txikia denez gero, agian denak telebistan edo sartuta daude, eta ez zaie interesatuko edo beste formaturen batean beste zerbait egitea, edo ez dakit... Niri *underground*-ean ibiltzea gustatzen zait, pila bat, hor nago eta oso pozik! Ordizian gaur 18:00etan da emanaldia, ordua apur bat arraroa da, eta ez dakit zenbat jende egongo den... Baina, hamar pertsona egonda ere, badakit momentu horretan euren arreta nirea dela, eta horregatik pribilegiatua sentitzen naiz! Eskertzen dut, benetan! Eta show polit, duin eta ona eman nahi dut. ○



adi lagun!

Plaza atalean zure iritzia* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

uk@aldizkaria.biz

*(sinatuta eta gehienez 330 berba)




Pinu artean

Gorlizetik dator oraingoan Fotografia atal osoa, bai argazkiak, bai argazkilaria bera. Luis de Isusi dugu gaurko artista, Urezarantzekoa. Eta ez du urrutira jo beharrik izan irudi-sorta ederra biltzeko: Gorlizko pinudian egin ditu argazkiak, azken urteotan. Sekretu asko gordetzen ei dituzte pinudiek eta basoek, horietako batzuk agerian utzi ditu argazkilari honen kamerak. Danetarako tarteak eskaintzen du paraje hark: jolasteko, kirola egiteko, bazkaltzeko, kartetan jokatzeko, zuhaitzetara igotzeko... Adin eta zaletasun orotako pertsonen aspaldiko topalekua dugu Gorlizko pinudia.

Argazkiak: **Luis de Isusi**







Bosgarren edukiontzia > Uribe Kostan hedatuz

“Hondakin kopurua murriztea helburu; hamaika bide erdiesteko”

Azken hiletan, Erandioko eta Urdulizko udalek bosgarren edukiontzia ezartzeko hautua egin dute, baita Sopelak ere; zaborra gutxitzea da sistema honen xedea. Asko dira murrizteko bideak, hau beste bat, agian, eraginkorrena..., batek daki... gai horretan sakontzeko ahalegina da honakoa.

Sistema honen sustatzaileek diotenez, edukiontzi marroia erabiltzeak onura handia ekarriko dio ingurumenari; izan ere, askoren ustez, konpostagaz kalitate bikaineko ongarria lortuko da, zarama gutxituko da eta atmosferara isurtzen den CO2-a murriztuko da. Argudio horiei eutsiz, Erandion eta Urdulizen daborduko martxan da bosgarren edukiontzia. Erandion, 2013ko urte hasieran, herritarrei bideratutako sentsibilizazio eta komunikazioa kanpaina egiten hasi ziren, herritarrek bat egin zezaten martxan jarriko zen dinamikagaz. Urdulizen ere, gauza berdintsua gertatu zen; urte hasieran udalak kanpaina egin zuen birziklatze-sistemaren barri emoteko, ondoren bi udalerrietan “birziklatze-kita” banatu zuten. Udalerrri bietan antzeko produktuez osatu zituzten kitak: ontzi marroi txiki bat, konposta daitezkeen poltsak, eta kaleko edukiontzi marroia- ren giltza zeuzkaten, besteak beste. Erandioko udalaren datuen arabera, Erandion, guztira, 623 auzokidek bat egin dute ekimenagaz. Auzokideek hondakin organikoak botatzeko guztira Udalak 25 edukiontzi ezarri ditu Erandioko hainbat lekutan; 11 Altzagan, 10 Astrabuduan eta 4 Erandio- goikoan. Herritarrek martxoaren 6an hasi ziren edukiontziak erabiltzen, eta horien erabileraren balantzeak adierazi bezala,



Erandion 25 edukiontzi ezarri dira; Urdulizen 10

lehen hilean 5.600 kilo batu zituzten; bigarrenean, barriz, 8.500 kilo hondakin organiko batu zituzten.

“Erandion 623 auzokidek bat egin dute; Urdulizen, 195 inguruk”

Udalak jakinarazi legez, batutako materia organikoa konposta bihurtzen dute, ondoren loregintza zein nekazaritza lane- tan erabiltzeko. Urdulizen, barriz, maiatzean jarri zuten martxan bosgarren edukiontzia, hasiera batean, 195 familiak bat egin zuten dinamikagaz, maiatzean, lehenengo hilean, 1940 kilo hondakin bildu zituzten. Herrian bertan, materia organikoa batzen duten 10 edukiontzi daude. Horieta batutako hondakinak Artigako Konpostategira eramaten dituzte. Urduli-

zen edukiontzieta dauden hondakinak eguenetan batzen dituzte; Erandion, astelehen, eguazten eta barikuetan.

Bestelako bideak

Erandio eta Urduliz gain, Sopelan ere sistema hau martxan jarri barri dute, ekai- nean hain zuzen. Halere, Sopelan 5. edu- kiontziaren sistema proiektu pilototzat hartzen dute; proiektua urtebete egongo da indarrean, eta bitartean neurketak egingo dira Sopelako Hondakin- Kon- tseiluaren eskutik. Horrek emaitzak az- tertuko ditu, eta bertan erabakiko da sis- tema hori eraginkorra den birziklaketa sustatzeko, edo beste sistemarik martxan jarri behar den. Baina, Sopelan dinamika hau ez da bakar- zaborrak murrizteko; izan ere, orain dela hil batzuk, Sopelako Hondakin- Kontseilua (SHK) sortu zen, eta horrek, hain zuzen, hondakin



Sopelan egindako kontseiluko bileretan eragileek, alderdiek zein herritarrek parte hartu dute.

kopurua murriztea du xede. Hainbat dira herritarren zein eragileen aldetik kontsei- luan jasotako proposamenak herrian hondakinak murrizteko, eta maiatzaren 15ean ospatu zen kontseiluaren azken bileran hainbat onartu ziren. Horrenbes- tez, udalak horiek aurrera ateratzeko kon- promisoa hartu du. SHK-ren aburuz, ekimen horiek erabat berritzaileak eta ait- zindariak dira Sopelan. Onartutako pro- posamenen artean, Arriatera hondartzako tabernetan edalontzia itzultzeko sistema

“Sopelako Hondakin Kontseiluan hondaki- nak murrizteko propo- samenak onartu dira”

ezartzeko proposamena dago eta kontsei- luak adierazi legez, aurtengo hondartza denboraldian proiektu pilotua martxan jarriko da udal-kontseziokoa den edari postuan eta ostalaritza lokal batean. Ho- rrez gain, herriko arrandegi eta harategie- tan tupperra erabiltzeko eta erosketa ber- dea bultzatzeko kanpaina ere abiatuko dute. Hori gutxi balitz, herriko jaietako bazkarian zero zabor eragiteko konpro- misoa hartu dute, baita jaietan edalon-

tziak berrerabiltzeko onurak tabernetatik zabaltzeko konpromisoa ere. Hala, Sope- lak hondakinak murrizteko asmoagaz murrizte-lanei heldu die.

Helburua: ZERO ZABOR

Eskualdean hondakinak murrizteko za- baltzen ari diren bideen inguruan galde- tu gura izan diogu Uribe Kosta Zero

Zabor taldeko Naiara Elorriagari, dioe- nez: “Lehenengo eta behin zaborraren eta hondakin- artean dagoen ezberdintasu- na aipatu behar dugu; hondakina da era- bili ondoren, erabilgarria izateari utzi di- on produktua, baina produktu horren ma- terialek balioa dezakete, birziklatu eta pro- duktu berrien ekoizpenean erabiltzen dira;

“Hondakinak murrizteko beste era bateko ekintzak abian jarri behar dira”

zaborra, aldiz, inolako baliorik ez dauka- ten gauzek osatzen dute. Zaborra honda- kin atalak nahasterakoan sortzen da. 5. edukiontziak ez ditu hondakinak murriz- ten, zaborrak murrizten ditu”. Hondaki- nak murrizteko bide eraginkorrenari buruz galdetuz gero, Elorriagak hauxe dio: “5. edukiontzia edo atez ate sistemak ez dira zaborra eta hondakinak murrizte- ko neurriak, hondakin-bilketa sistemak baizik. Beraz, zaborra eta hondakinak murrizteko beste era bateko ekintza osaga- rriak martxan jarri beharko genituzke: on- tzien erabilera murriztu... SHK-an hon- dakinak murrizteko proposamenak egin ditugu, hori da bidea”. ○



Hondakinak produktu barria sortzeko erabil daitezkeela aldarrikatzen du Zero Zaborrek



BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GARKO



**GIZONENTZAKO
MODA**

Tel: 94 460 70 84
ALGORTA

[zinema]

Mikrofilm zinemaldia

Plentziako genero baltzeko film laburrei begirako jaialdia **uztailaren 5ean eta 6an**



Info+: www.mikrofilmfestival.com

Bigarren urtea beteko du aurten Plentziako Mikrofilm Short Festival-ek uztaileko lehenengo aste akabuan. Moto-istripuz hil zen Alex Aranaren omenez hasi ziren antolatzen Mikrofilm lehiaketa-jaialdia. Arduradunen esanetan: “Zinema beltza, laburra, ezohikoa; kontakizun laburrak, begi biluzien aurrean film handien anaia leloak diruditenak; ezin okerrago. Istorioak dira eta kito, kafea edota txupitox hartzen den bitartean kontatzen direnetakoak. Gaur egun ezinbesteko teknologiari esker dentistaren itxarongelan edo komun-ontzian goza litezkeenak. Hala ere, aurreritzi komertzialak di-rela eta zine aretoetan ezin daitezke ikusi

eta beste hainbat jaialdiren antzera, Mikrofilm, (...) horiek ezkututzen duten talentua eta ahaleginari programazioan lekua bilatzen saiatzen da”.

Hala, *noir* zinema edo genero baltza oinarri duen film laburren lehiaketara aurten hamaika herrialdetako 248 lan aurkeztu dira. Haritz Zubillagak, Idoia

«Emanaldia Plentziako alde zaharreko eliza alboko plazan izango da»

Estebanek eta Pedro Riverok osatu duten epaimahaiak emanaldirako horietatik 15 lan aukeratu dituzte: *Animation attack* (Hainbaten artean, Danimarka), *Heads Up* (Alex Merkin, AEB), *Death of a Shadow* (Tom Van Avermaet, Belgika), *The mass of men* (Gabriel Gauchet, Erresuma Batua), *Negro* (Wal, Argentina), *Parrot Peeter Aurelius* (Anti & Ando Navlainen, Estonia), *Sunset Day* (J.A Duran, Espainia), *Banda Ancha* (Javier Cirujeda Navarro, Espainia), *Necrolovers* (Victor Uribe Parraguez, Txile), *The Last Round* (Ted Atherton, Kanada), *Candy Hearts* (Joan Martin Gimenez, Espainia), *The Devil* (Jean Gabriel, Espainia; 6'00"), *Revenie* (Valentin Ggarin, Alemania), *Halowin* (Paco Torres, Espainia), eta *Greta Oto* (Marina Poddubnaya, Errusia). ○

Armintza reggae zalea

Dana prest **uztailaren 13an** egingo den **23. Txapelreggae** jaialdirako



Bederatzi talderen kontzertuak gozatu ahalko dute bertaraten direnek

Urtero legez herriko jaiakaz batera, armintzarrek jamaikar kulturari eta, zelan ez, reggae musikari tarte interesgarria eta erakargarria egingo diote. Aurten, 23. ekitaldia beteko du Txapelreggae jaialdiak, eta dagoeneko zein taldek joko duten iragarri dute antolatzaileek.

Hitzordua uztailaren 13rako, zapatua, ipini dute eta iluntze-gaueko kontzertuak baino lehenago, egun osoan jamaikar haizeak girotuko du Armintzako portua, hau da: musika emanaldi nagusiez gainera, beste hainbat ekitaldigaz eta ekintzagaz gozatzeko aukera egongo da. Ostera, jai-

aldia erakargarritasun nagusia musika kontzertuak izanik, aurtengo egitaraua osatzen duten taldeak hauek dira: kartel-buru den New York Ska Jazz Ensemble (AEB), Solo Banton (Erresuma Batua) eta Thunder Clap Sound System (Euskal Herria /Erresuma Batua), Conscious Sounds (Erresuma Batua) eta King General (Erresuma Batua), Gregtown (Madril), Global Warning (Almeria), Mystic Souldiers (Bartzelona) eta Glaukoma (Euskal Herria). Betiko legez, kontzertuetarako sarre-ra musu truk da. ○

Info+: www.txapelreggae.com (facebook)

jaialdia > EHZ

Ekainaren 28, 29 eta 30ean izango da Lekornen (Lapurdi) Euskal Herria Zuzenean jaialdia. Zein talde, zein egunean, zein oholtzan e.a. daborduko zehaztasun danak sarean daude. Aurten 20 urte dira EHZ antolatzen hasi zirenetik, eta 18. ekitaldia du jaialdiak; lehenengoa Lekornen. Dantza, antzerki, zein zirko-emanaldi eta mahai inguruez gainera kontzertuak dira protagonista, askotariko doinu-estiloak. Besteak beste hurrengo taldeek joko dute: barikuan, Keny Arkana, Fermin Muguruza, Willis Drummond, Anestesia, Zuloak, Alice Francis, Skandalue, Etienne de Crécy - DJ Set, Photopiteau e.a.; zapatuan, Jimmy Cliff, Black Lips, Capsula, Herri Oihua, Iheskide, Belako, Misteur Valaire, Casey, Gull e.a. eta domekan, Archive, Itziarren Semeak, Bal 2 Vieux de Guetay International Tour e.a. 3 eguneko bonoak (60 emanaldi) 56 euro balio du.

Info+: ehz-festibala.eu

jaialdia > AzkenaRock

Hogeitalek joko dute ekainaren 28an eta 29an Mendizabal (Gasteiz) egingo den Azken Rock Festivaleko (ARF) 12. ekitaldian. The Black Crowes, The Smashing Pumpkins, The Gaslight Anthem, Rocket From The Crypt, Gov't Mule, Los Enemigos, M Clan, The Sheepdogs, Alberta Cross, The Sword Walking Papers, JJ Grey & Mofro, Uncle Acid & The Deadbeats, Heaven's Basement, Troubled Horse, Sex Museum eta Los Zigarros taldeen kontzertuak izango dira, besteak beste. Egun biko bonoa: 65 euro.

Info+: www.azkenarockfestival.com

diskoak

Folk songs for...
Mikel Uraken
Lehendakari Lee




Loan taldea desegin eta bakarkako ibilbideari ekin ostean, Mikel Uraken bi botarraren lehenengo lan luzea da *Folk songs for tormented souls*. Ingeleseko bederatzi kantuk osatzen dute pasa den urteko azaroan Bonberenea estudioan Karlos Osinaga teknikariagaz grabatutako diskoa; Uraken berak sortutako ziguilak plazaratu du lana.

Perkins
Norman
Hotsak



Kepa Arakistain, Alex Ariznabarreta, Peñalba eta Beñat Narbaizak osatzen duten taldeak bigarren diskoa argitaratu du. Eibartarrek biniloan plazaratu dute lan hau, barruan CDa ere baduela. “50eko hamarkadako rock&roll, psicobilly, hardcore, garage-punk edo psikodeliaz josiriko amarauneko” doinuez osatu dute lana.

Saurius
Humus
Bonberenea Ekintzak



Tolosako laukoteak bosgarren diskoa kaleratu du. Natalia Garmendia (ahotsa eta baxua), Fernando Manzisidor “Mantxi” (gitarra), Luisma (gitarra) eta Aritz (bateria) osatzen duten taldeak zazpi kantu jaso ditu lan barrian; azaldu dutenez, “eritmoak sinpleagoak diren arren, sekulan baino indartsuagoak dira; gitarren marrazki eta melodiak protagonismo handia dute”.

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Eusko Herria kaleko 8a)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkeztzen baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bítxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Euskarara ekarriak

Itxaro **Bordak** itzultitako **Monique Wittigen** hiru testu Armiarma gunean irakur daitezke

Susa Literaturak jakitera emon legez, Monique Wittig (Rin Garaia, Frantzia, 1935–Arizona, AEB, 2003) idazle eta teorialari feministaren hainbat testu labur euskaratu ditu Itxaro Borda idazleak. Armiarma sareko gunean irakur daitezke *Paris-la-Politique* liburutik (P.O.L, 1999) itzultitako hitzaurrea eta ondoko hiru kontakizun laburrak: *Ihauteria*, *Eromenari deika*, *Isolazionistak ala isolatuak?*.

Idazle frantsesari eskainitako sarreran azaltzen denez, “Emakumeen Askatze Mugimenduaren (MLF) sorreran parte hartu zuen eta generoen teorien garatzearen abiapuntuan aurkitu zen. Frantzia ez da asko balioztatzen bere ekarpena, baina munduan barrena funtsezkoa bilakatu da feminismo eta Queer ikasketetan. Marguerite

«...funtsezkoa bilakatu da feminismo eta Queer ikasketetan...»

Durasen sostengua jaso zuen Medicis Saria irabazi zuenean... Pariseko Les Gouines Rouges izeneko lehen lesbien taldeko kide izan zen. Ezaguna da Djuna Barnesen ipuin-bildumarako sarrenako errana: “Lesbianak ez dira emazteak”. Lesbianismo erradikalaren oinarriak finkatu zituen”. Besteak beste, nobela bi idatzi zituen:

liburuak



Batzarra, Gure Gobernua
Pablo Sastre Forest
Elkar

“Antzinako herri-batzarretatik gaurko kontzejui ireki eta udal-letara bidaia” egiteko gonbidapena da liburuak; Pablo Sastrek estatuak eta kapitalistak batera diharduten garaian, euskal tradizio politikoan bilatzen ditu herri-gobernuaren oinarriak, “euskal herrietako batzarra” proposatuz...



Munduko bandarik txarrena
Jose Carlos Fernandes
Txalaparta

Orain hilabete batzuk kaleratu zen Bego Montoriok itzultitako idazle portugaldarraren komiki-lan hau. Jatorrizko lana sei liburukiz osatzen da, honetan lehen hirurak daude. Harkaitz Canok egin du hitzaurrea eta barruan: mundu, pertsonaia, ardura eta bitxikeria “absurdoen” garrantzi mugabakoa...



Info: ekarriak.armiarma.com/zizkak/?wittig03&m=

L'oponax (1964) eta *Les Guérillères* (1969). Euskaratutako testuak, “garai eta aldizkari ezberdinetarako izkiriaturak dira, idazki zorrotz bezain laburretan bere militantzia urteekiko zein emakumeen infernuko zirkuluetako istorioak ironiaz tratatzen ditu”. Hizkuntza-funtzioak ere ikeritu zuen; haren iritziz, maskulino hegemonikoaren esanetara dago hizkuntza, eta Wittigek hitzaurrean adierazi legez: “(...) bada ikuspegiaren unibertsalizatze-bilaketa bat “elles” izenetik abiatuz “ils” hartarik egiteko ohitura den moduan. Eginkizunak parabola honetan sexuaren eta hizkuntzaren kategoriak ezeztatzea du helburu...” ○

[kirola]

Triatloirik gogorrena

Extreme Man 113 Getxo triatloia uztailaren 7an egingo da, **bigarren**ez



Info+: www.extreme-man.com

Iruñean zezenak, Getxon puntako kirolariak: Extreme Man 113 Getxo triatloia egingo da San Fermin egunean, uztailaren 7an. Getxon iaz egin zen lehenengo proba hau, baina beste hainbat tokitan ere egin ohi da distantzia erdiko triatloia: 1,9 kilometro igerian, 90 bizikletaz eta 21,1 korrika. Beraz, puntako kirolariak ikusteko aukera egongo da, ikuskizun ederra askorentzat.

Entzierroen moduan, goizean goiz, 07:30ean hasiko da proba, ohi legez igeriketaz, Ereaga hondartzan hasi eta amaitu. Jarraian, bizikleta hartu, eta Uribe Kosta eta Uribe Butro eskualdeak zeharkatu dituzte kirolariak.

Oinezko zatia ere Ereagan hasiko da, bertan egongo da-eta bizikletentzako tokiak. Korrika Bizkaiko Zubitik apur bat aurrerago joango dira parte-hartzaileak, eta atzera buelta egingo dute Algortako Portu Zaharrera, azkenik Ereagara itzultzeko: bertan ipiniko dute helmuga. Lehenak 11:30 edo 12:00 aldera iritsiko

ei dira, baina probaren kontrola 15:30ean itxiko dute. Gizonezkoen eta emakumezkoen mailez gainera, lasterketa hau errele-buka ere egin daiteke eta, kategoria horretan, taldeak mistoak izan daitezke, bizpahiru lagunek osatuak.

Ikuskizun aparta izango da triatloizaleentzat baina, parte hartzeko gogoak

«Ereagan hasi eta amaituko da proba, errele-buka egitea ere badago»

daukazu, oraindino badaukazu aukera, izan ere, izen-emotea lasterketa baino 10 egun lehenago itxiko dute. Probaren webgunearen bitartez egin daiteke, ondoko helbidean: www.extreme-man.com. Izen-emotea aurrez aurre egin gura baduzu, barriz, Getxoko Trirunners dendara hurbil zaitezke.

Iazko irabazleak emakumezkoetan Pauline Damians eta gizonezkoetan Guillaume Ducasse, 5:08:30 eta 4:14:35 denborakaz, hurrenez hurren. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Uriz Moreno Ajuria > psikologoa

“Tailerren helburua da maitasun erromantikoaren eredua desmitifikatzea”

Maitasun erromantikoari buruz aritu da azken aldian Uriz Moreno Ajuria algortarra hainbat tailerretan, berau desmitifikatzen saiatuz. Adibidez, zer eragin daukate zinemak eta musikak maitasun ereduari? Gure arretera piztu du gaiak eta harengana jo dugu gehiago jakin guran.

—Maitasun erromantikoari buruzkoa, zer tailer mota da hori?

—Tailerra ez da bakarrik horri buruz. Sarreran maitasun mota diferentei buruz aritzen naiz, azken finean, maitatzeko modu eta maitasun sentimendu diferentek baitaude. Gero hitz egiten dut maitasunaren muga biologikoen, jendartearen eraginaren eta maitasunak daukan funtzio psikologikoen inguruan. Eta horren ostean sartzen gara maitasun erromantikoaren eredua desmitifikatzera, azaltzera zer mitok inguratzen duten maitasun mota hori, eta horiek zailtasun jarzera. Aztertzen ditugu maitasun erromantikoaren adierazpen diferentek pelikuletan eta abestietan. Apur bat aztertzen dugu emakumearen estereotipo eta rola zein den maitasun erromantikoaren mitoraren baitan. Pertsona guztiei zuzenduta dago tailerra.

—Zergatik gai hori?

—Genero-indarkeriari buruz tailerrak ematen ditut, gai zehatz honi buruzko interesa piztu eta nire kabuz heldu diot.

—**Zerikusirik daukate genero-indarkeriak eta maitasun erromantikoak?**

—Bai, maitasun erromantikoa emakumea mende izateko eta kontrolatzeko tresna delako. Askotan, genero-indarkeria gertatzen den bikoteetako bikotekideek daukaten maitasun-eredu ideala aztertut-



Genero-indarkeriaren gaineko tailerrak emoten ditu Lehen eta Bigarren Hezkuntzan

ta, ikusten da mitoz bete dagoela. Baina egia da maitasun erromantikoak genero-indarkeria gaitzen duela: ez da bakarrik azken egoera horretan ikusten, kontrara, oso zabalduta dago.

—**Parte-hartzaileak harritzen dira?**

—Maitasun-eredu hau jasotzen dugu toki guztietatik eta barneratzen dugu in-

ra dut oraindik, baina nagusia da zenbateraino barneratuta dugun konturatu barik, eta askotan funtzionatzen dugula maitasun eredu horren arabera, hark sortzen dizkizun aurreikuspenekin. Zeure burua izan dezakezu oso feministatzat eta uste izan eredu tradizionalarekin apurtzen duzula, baina gauza asko inkontzi-

“Zeure burua oso feministatzat izan dezakezu, baina gauza asko inkontzienteak dira eta automatikoki egiten ditugu”

kontzienteki, pentsamendu eta jarrera asko automatizatuz. Jendea harritzen da, gauza askorekin ez zarelako konturatzen aurrez aurre jartzen dizkizuten arte. Hori da tailerraren helburua: gai ez hain eza-gunaren inguruan kontzientzia piztea.

—**Zer ondorio atera duzu orain arte?**

—Gitxi egin ditudanez ondorio gitxi at-

enteak dira, automatikoki egiten ditugu eta ez gara paratzen pentsatzera zergatik ulertzen dugun maitasunak horrelakoa izan behar duela; erakutsi digute horrela behar duela eta ez dugu zailtasun jarzten. Nire buruari buruz ere jabetzen naiz gauza askorekin, horretaz konturatzeko balio du ariketak. ○

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “**Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik**” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.



Herensugea. Ilustrazioa: Daniel Castello

Herensugeri koplak

Urkiak baino altuagoa,
Jentilak bezain indartsu,
Torto bezain erasotzailea.
Herensuge du izena.

Ahotik sua nola botatzen duen
ikusi nuenean
argi geratu zitzaidan
infernuko semea izan behar zela.

Kobazulo batean bizitzen da,
ondoko herriko seme-alabak erasotzen
edota abereek harrapatzen.
Ezin dugu gehiago agoantatu.

Ezpata prestatu dut,
eta maite ditudanak agurtuz,
mendira noa, akatzeko asmoz.

Bukatu zaizu denbora
izaki madarikatua.
Larru gogorra badu,
begietan erasoko dut.

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzen has zaitezzen.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane tx.
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

C/ Alangobarri n°3 C.P. 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEGUI

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



CALURPEN

GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

[pintxotan]

Haragi-bola

zapore kontrastea jaun eta jabe



Haragi-bolak kroketa handiaren itxura hartzen du

Oraingoan Portu Zaharra tabernako barrara jauzi egin dugu, eta bertan haragi-bola deituriko pintxo gozoagaz topatu gara. Pintxo egiteko lehenengo eta behin patata bola bat egin behar dugu; horretarako patata bi egosiko ditugu, ostean zuritu, eta txikituko egingo ditugu purea egiteko. Txikitutako patatak gurina, esnea, gatza eta piperbeltzagaz nahastuko ditugu. Hori eginda pure antzeko oreka gelditu zaigu. Momentuz, horrela utzi, barruan eramango duen jaki nahasketak egiten hasiko gara-eta. Barruan ipintzeko idi-haragi txikitua beste osagai batzuek nahastuko dugu: tomateak, tipula, txilindron, tabaskoa, cayenne pikanteak. Horrela, haragi txikitua tipula zatitxoakaz eta tomateagaz kozinatuko

dugu; gero, haragiari tabaskoa, cayenne eta txilindron pixka bat botako diogu. Jarraian, haragi nahasketari bola forma emongo diogu, eta aurretik egin dugun patata bolaren barruan, erdi-erdian, sartuko dugu haragi-nahasketak. Hala, patataren bihotza haragizkoa eta erabat pikantea izango da. Behin bola osatu dugula, bola arrautzaztu beharko dugu, eta ondoren ogi birrinduan pasatuko dugu, azkenik frijigailuan egiteko.

Eta hortxe, bolaren kontrastekaz gozatzeko momentua heldu zaigu; zapore leuneko gorputza eta bihotz pikantea duen ahogozoagaz. ○

Osagaiak: Patatak, gurina, gatza, piperbeltza, idi-haragi txikitua, tipula, tabaskoa, txilindrona, arrautza, ogi birrindua



Croissanterie Briocherie

MONIE LAIA 1
48995 Getxo (Bizkaia)
croissanterie-getxo.blogspot.com
94 460 86 48



BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Frutir lehorrak - Aldizkariak - Libareriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)

Hainbeste urte eta lan ostean lizentziatu zara, zorionak! Eta beste pertsona bat langabezia-tasa puzteko... Beno, oraingoz uda gozatu, ospatzeko asko duzu-eta!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)

Uda denboraldia inauguratu gura zenuen kosta ahala kosta, eta itsasoan sartu zinen neopreno barik... Pazientzia izan, lortuko duzu-eta hotzeria gainditzea!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)

Sorgin hori! Akelarre ederra egin duzu azken *sanjuanetan* ere, ezta? Baina daborduko ez zara horren gazte eta aje itzela izan duzu: zer ete zuen edabe magikoak?

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)

Ipinitako ordua baino askoz beranduago iritsi zinen zapatuan etxera eta ondorioak izango ditu: daborduko ez duzu gozatuko jai asko udan... ondo pasako ahal zenuen!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)

Triste baino tristeago zabilta, baina ezin diozu errua bota eguraldiari. Zeuk ere zerbait egin beharko zenuke zuloitik ateratzeko. Animatu, badirudi eguzkia urtengo dala-eta!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)

Jaunartzerik ez zenuen egin, baina ederto ezagutzen dituzu santu danak: San Juan, San Pedro, Santa Ana... Egutegiak baino jai gehiago ospatzen duzu zuk azkenaldian...

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)

Hilabetea amaitzeaz da. Kostata, baina iritsi zara azken txanpara, soldataren azken sosak poltsikoan, ohi legez. Zer gertatzen ari da, bada: hilabete luzeegiak edo soldata laburregiak?

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)

Armairua bete-bete daukazu iragan urteko beherapenetako bainujantzi eta udako soinekoakaz, danak etiketa aldean oraindino. Baietz datorren urtera arte horrela mantendu!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)

Azterketak amaitu eta gainditu, azkenean izango duzu tartea mendira joateko. Eguraldiak laguntzeko otoitz eta otoitz ari zara, baina jaungoikoak lagunduko ahal dizu!

META



(Irailak 17 urriak 16)

Aizu, non sartu zara? Danak dabilta zure bila. Azken aldiz ikusi zintuzteten Mari, lamiak, galtzagorriak eta basajaunakaz suaren inguruan dantzan... Itzultzeko asmorik daukazu?

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)

Egunero bakarrik zabilta paseoan, azkenean txoratuko zara. Hobe zenuke herriko adinekoakaz berba egitea behintzat, istorio polit asko dauzkate kontatzeko, galdetu bestela.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)

Ohi baino politago zaude egunotan eta jakin badakizu, baita sinetsi ere! Printzeen modura zabilta, danei goitiki begiratu. Horrela jarraituz gero ez printzipe ez ezer, igel bihurtuko zara azkenean!



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan



Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Nabarmendutako gunetako ariketak bideratuz, egoki bete itzazu lauki danak, jakinik lerro eta zutabe bakoitzean 1 eta 6 bitarteko zenbakiak ageri direla eta ez dela zenbakirik errepikatzen. Adb.: lauki biko gunean ariketa “7+” bada, honako hauek izango dira laukiak: 1+6, 3+4 edo 2+5 (ordena ez da kontuan hartzen).

		3		6	5		9
8			1		2		
		4		9		5	1
3	5			8			1
7		1	9		3	2	8
	8			7			5 6
9		7		1		4	
			8		7		9
	2		4	3		6	

			4	2			
8							6
	9	4	7		1	5	3
	5		1		8		4
9		6				2	5
	1		6		9		8
	6	8	2		5	9	7
3							2
			9	4			

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Nortzuek eragingo digute barrea uztailaren 13an?

- **Pintxo, Pantxo eta Kilikok**
- **Pirritx, Porrotx eta Marimototsek**
- **Txirri, Mirri eta Txiribitonek**

SARIA

La Gusana liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta

Tf. 94 491 14 12

lagusana

> Aurrekoaren erantzuna: Leioan eta Barrikan
> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA

Oinutsik

konsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana

Tf. 94 404 74 20

oinutsik@euskalnet.net

> Aurrekoaren erantzuna: Hilak 21, Etzetxu (Portu Zaharra)
> Irabazlea: **Arrate Fernandez***
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



Bittor Egurrola

Uso-tiro elkartasun-jardunaldia Txipion (Plentzia), 1964

Barrikako nagusien babes-etxeari, edo zaharren egoitzari, eta bertokoei laguntzeko diru-bilketa antolatzen zuten Plentzian. Izan ere, Ehiza eta Arrantza elkarteko hainbat lagun Plentziako kasinoan batuta zirela otu zitzaien ideia: dirua batzeko uso-tiro jardunaldia prestatzea. Txipioko Vegan abuztuan egiten zuten ekitaldia eta kanpoztar andana etortzen zen uso-tiroan parte hartzeko, eta bide batez elkartasunez babes-etxearentzako diru-kopuru polita batzen zen. Andrazkoren batek edo bestek parte hartzen ei zuen uso-tiroan, baina gehienak egunpasa joaten ziren edo antolakuntzan laguntzen zuten tortillak, pintxoak eta abar eginez, besteak beste. Hainbat urtetan egin zen ekitaldia, eta argazki hau bigarreanean edo ateratakoa da. ○

Ezkerretik eskumara: Mercedes Acha, Elena Robledo (GB), Inmaculada Manene, ? Parra, Luchi Echevarria (GB), Rosa Blanca Bilbao Goyoaga, Adita Parra eta Lilian Gancedo.

MIKEL MARTINEZ ETXARRI > aktorea

“Fisiologia, psikologia eta sozialki oso garrantzitsua da umorea”

Testua: Zuberoa Iturburu Argazkia: Joseba Barrenetxea



Defini egizu zeure burua berba bitan.
Mugitua eta gauza bi aldi berean egitea gustuko duena.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Film on batean. Eta film ona izan liteke komedia, tragedia...

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?
Pasa dan mendeko bidaiari-esploratzailea, leku ezezagunetan sartzen den eta horien berri ematen duen horietakoa.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat?
Lau katakume ibaira botatzeko agindu zidatenean, hiltzeko; txiki-txikia nintzen eta trauma izan nuen.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?
Traizioa, eta hori da gezurra edo hitza ez betetzea.

Eguna ala gaua? Zergatik?
Biak. Eguna, jendearekin egoteko eta gauza asko egiteko; eta gaua, beno gauetz ere jende askorekin egon zaitezke, baina gauetz nire buruarekin egotea gustuko dut.

Parrandarik politenak non?
Berdin dit non, garrantzitsuena da norekin.

Baduzu ezizenik? Zer dela-eta?
Tirillas eta *Inurri atomikoa*, azken hori motorrarekin ibiltzen naizelako.

Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena?
Askotan egindakoa, 800 metroko horma eskalatzea semeagaz batera; imajinatzen dut erokeria dela, baina oso gustura egindakoa.

Umorea garrantzitsua da?
Oso; fisiologikoki, psikologikoki eta soziologikoki osasuntsu egoteko.

Zer barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?
Euskal hiriburuetak antzoki nagusietako denboraldi berriko obren erdia euskaraz dela. ○

LABURREAN— Denboraren korapiloak bakarrikzeta eskaini barri du Erandion Mikel Martinezek (Arinzano, Nafarroa, 1955), baina lotu barik ibili beharrekoa bera, *Lingua Nabajorum* lanagaz ere badihardu, Patxo Telleriagaz batera (aurretengo Max sarietako baten lan irabazlea). Aitortu duenez nabari dute krisiaren eragina, baina jendea erakartzen dute antzokira: “Ezin kexatu, emanaldi nahiko egiten dugu ikusle nahiko dator eta ezagutzen gaituzte; aurrekoetan ere oso ondo pasatu dute”. Orainsu telebistan ikusi dugu, gitxitan gertatu legez, *DBH* saioan eta beste obra bat prestatzen dabil: *Pankreas*; aurreratu digunez, bertsotan ere entzun ahalko dugu... Saltsa danetako perrexila gure Mikel!

Atzeko jesarlekua
estreinatu
aurretik...

Praktika!
ezazu!

Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria dakar!

100 euroko erregai-txartela.
Asteburuko egonaldia landa-etxe batean.
iPad bat bidaia eta ibilbideen aplikazioak sartuta.

Estreina ezazu atzeko jesarlekua behar duzun guztiarekin!

Ikasi eta irabazi!

Galdetu zure autoeskolan edo euskara zerbitzuan!

Erandio: Altzaga, Arias, Astrabudua, Erandio eta Gaztedi. **Getxo:** Algorta, Amezti, Arias, Getxo, San Inazio eta Uribe Kosta. **Gorliz:** Gidatu. **Leioa:** Arias eta Orixte. **Plentzia:** Uribe Kosta. **Sopela:** Kaiku, Sopelana eta Uribe Kosta. **Urduliz:** Kaiku.

URIBE KOSTA K O

Getxo

E!

Leioa

EUDEL

XXXVII Getxo Jazz

UZTAILA 3-7 JULIO 2013
BIOTZ ALAI PLAZA • ALGORTA 21:00



- IGNACIO BERROA QUARTET
- STACEY KENT

- AL DI MEOLA WORLD SINFONIA
- GONZALO RUBALCABA TRIO

- JAZZ AT LINCOLN
CENTER ORCHESTRA
WITH WYNTON MARSALIS



944 914 080 • www.getxo.net • kulturetxea@getxo.net

sarreraren salmenta = venta de entradas
bbk-ren arazaketa kutxazainetan en los cajeros multiservicio de bbk
www.bbk.es
bbk

Antolatzaileak | Organizadores



Babesleak | Patrocinadores



Laguntzaileak | Colaboradores

